

Herririk Herri |3|

Izurtzako Udalak erabilera anitzeko eraikina premiazkoa den jakin gura du

Ekonomia |10|

Eusko Label produktuak nazioartean ezagutzera eman gura dituzte



Berbaz |9|

S. Gaztelumendi: "Eguraldi iragarpena geroago eta zehatzagoa izaten da"

50 lanpostu berri, tokiko enplegua bultzatu guran

> Eskualdean martxan jarriko dituzten lanpostuak sei hilabeterako izango dira

> Krisiak eragindako langabeziari aurre egitea da ekimenaren helburua

2

Udal eraikinetan energia aurrezteko diru-laguntza

Abadiño• Tokiko Inbertsioetarako E planaren diru-laguntza energia aurrezteko hamar egitasmo finantzatzeko erabiliko du Udalak. "Epe luzearako onura ekarriko duten inbertsioetarako baliatuko dugu", dio Navarro alkateak. Diru-atalik handiena Traña-Matienako eskoletako energia-eraginkortasuna hobetzeko erabiliko dute.

6

Iurretan aurkeztu dute Elkartasun Karabana, Saharara abiatu aurretik

Durangaldea• Herria auzo elkar-teak eskualdean bildutako elikagai eta bestelako produktuekin bete du saharar kanpamenduetara bidaltzeko kamioia. Bihar Euskal Herritik Tindufeko kanpamenduetara (Aljeria) abiatuko den elkartasun karabanagaz bat egingo dute Gasteizen. Durangaldetik 24.696 kilo elikagai eta 4.000 euro konpresatan eroango dituzte. JAED elkar-teak 25 arropa kutxa, umeentzako esnea eta zerealak eman ditu. Diru-laguntzatan 39.465 euro jaso ditu elkar-teak. Herriako kideak "pozik" agertu dira ekimenak herritarren artean izan duen harreragaz.

3



• Durangaldea

Ezker abertzalearen eztabaidan 350 lagunek parte hartu dute

6

• Elorrio

Eraikin historikoak konpontzeko diru-laguntzak onartu dituzte

7

• Otxandio

Herriko toponimia liburua, martxorako prest

4

• Iurreta

Iturburuako ortu ekologikoak gertu egongo dira udarako

4



MATRIKULA EPEA:
Matrikula 2010ko otsailaren 10etik martxoaren 2ra arte egin ahal izango da.

MATRIKULA LIBREA 2009-2010

MATRIKULA ON-LINE EGINGO DA:

Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute, honako web orriaren bidez:

<http://eoiuskadi.net>

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/hizkuntzak

Matrikula zelan burutu, hizkuntzak, maila eta eragin-eremuari buruzko informazio gehiago jasotzeko:

www.eoidurango.net

Zubiaurrea, 1 (DURANGO) ☎ Tel.: 94 681 66 45 - 94 620 33 42



HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Mankomunitateak 50 lanpostu sortuko dituen programa aurkeztu du

Miloi bat euroko inbertsioagaz, enpleguek urte erdiko iraupena izango dute, eta lanaldi osokoak dira



Iñaki Totorikaguena programaren bultzatzailea eta Marian Larrauri Mankomunitateko lehendakaria, azalpenak ematen.

Durangaldeko Mankomunitateak tokiko enplegua indartzeko programa aurkeztu du asteon. Mankomunitatea osatzen duten zortzi herrietako udaletan, Garain, Berrizen eta Mankomunitatean bertan 50 lanpostu sortuko dituzte. Sei hilabetezko iraupena izango dute eta lanaldi osokoak dira. Egitasmoa egiteko milioi bat euroko inbertsioa egingo dute; Bizkaiko Aldundiko Enplegu eta Formazio Sailak 450.000 euro gaz lagunduko du.

Egitasmo hori Eusebio Larrazabal Aldundiko Enplegu eta Formazio Saileko diputatuak aurreratu zuen bere sasoiaren, eta orain aurkeztu dutena zirriborro haren garapen zehaztua da. Marian Larrauri Mankomunitateko lehendakaria azaldu duenez, "krisiak gogor jo du eskualdea, eta eragin duen langabeziari ekimen zuzenekin aurre egitea dugu helburu". Iñaki Totorikaguena Durangaldeko automozioaren arloan jasan

M.Larrauri: "Krisiak gogor jo du eskualdea eta langabeziari ekimen zuzenekin aurre egitea dugu helburu"

duen beherakada azpimarratu du, eta horrek eragin duen langabeziaren hazkundea: "Mankomunitatea herritarren beharrezane begira dago, eta arazo larrienak automozio beherakada eta langabezia dira". Eskualdearen erdigunea hartu dute programa gauzatzeko eremu geografiko legez, eta horretatik sartu dituzte Garai eta Berriz ere.

Mankomunitateko zortzi herrietan, Garain, Berrizen eta Mankomunitatean bertan sortuko dituzte lanpostuak

Lanpostuak ildo anitzekoak izango dira eta herri bakoitzeko Udalak bere beharren arabera zehaztu eta banatuko ditu: lorategien mantenua, auzobideen garbiketa, artxiboak osatzea... Lanpostuek sei hilabetezko iraupena izango dute eta lanaldi osokoak izango dira. Tokiko enplegua indartzeko programa aurrean gauzatu behar da, beraz, programaren barruko udalek "martxoan edo, beranduen ere, apirillean banatuko dituzte lanpostuak" Totorikaguena arabera.

Udal bakoitzak sortukoduen lanpostu kopurua irizpide biren arabera banatu dituzte: "biztanleriaren eta herri bakoitzaren behar eta interesen arabera", Totorikaguena esanetan.

90.000 euro enpresetara
Beste neurri bat ere jakinarazi du Mankomunitateak. Hiru urtean 90.000 euro (30.000 euro urtero) emango dizkiote Durangaldeko

90.000 euro enpresetara bideratuko dituzte, merkatuan lehiakortasuna berreskuratu dezaten laguntzeko asmoz

Abadiñok "beste alternatiba" batzuk erabiliko ditu enplegua sortzeko

Abadiñoko Udalak Mankomunitateak abiatutako egitasmoan ez du parte hartuko. Ildo horretatik, Abadiñoko Udalaren jarreragaz "oso desilusionatuta" dagoela adierazto dau Marian Larrauri: "Eurekin izandako batzar guztietan tematu gara, baina ez dugu erantzunik jaso".

Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak "beste alternatiba batzuen aldeko apustua" egin dutela erantzun du: "Lanpostuak sortzeko orduan ez gara beste

herri batzuen atzean geratuko. Beste alternatiba batzuen alde egiteak ez du esan gura lanpostuak sortzearen kontra gaude, modu diferentean sortuko

J.L.Navarro: "Lanpostuak sortuko ditugu, baina beste alternatiba batzuen aldeko aukera egin dugu"

Enpresari Elkarteari. Durangaldean indar handia du automozioak, eta "krisiak gogor jo du sektore hori", pentsaurrekoan gogoratu zuten: "Merkatuan lehiakortasuna galdu dugu eta berriro lehiakorak izateko egitasmoa osatzen dabilta. Eraldatze prozesu horretan lagundu gura dugu; merkatu berriak aurkituz, enpresa-proiektu berriak garatuz". ■ J.Derteano.

ditugula baino". Erantsi duenez, "kontua ez da edozelan dozenakalagun kontratzea, ezpada logika baten barruan egitea, jakinda zenbat lanpostu behar diren, gero ahalik eta baldintza onenetan kontratatzeko".

Abadiñoko EAJko zinegotzi Axier Garatek Navarrori erantzun dio: "Egoera dagoen moduan egonda, ezin daiteke lanpostuak sortzeko aukerarik alperrik galdu. Erabaki oso txarra dela deritzogu". ■ J.D.

EGITASMOA

Aurrekontua:

- Milioi bat euro (450.000 euro Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu eta Formazio Sailak ipini ditu)

HERRIRIK HERRI

DURANGO:

- 12 lanpostu

ELORRIO:

- 6 lanpostu

IURRETA:

- 5 lanpostu

BERRIZ:

- 5 lanpostu

ZALDIBAR:

- 5 lanpostu

ATXONDO:

- 4 lanpostu

MANKOMUNITATEA:

- 3 lanpostu

MAÑARIA:

- 2 lanpostu

GARAI:

- Lanpostu bat

IZURTZA:

- Lanpostu bat

* Abadiñori sei lanpostu zegozkion, baina egitasmoan parte ez hartzea erabaki du. Gainerako herrien artean banatuko dituzte sei enplegu horiek. Oraindik ez dute erabaki zer herritan banatu.

ENPRESENTZAKO

- 90.000 euro Durangaldeko Enpresari Elkarteari hiru urtean. Urte bakoitzeko 30.000 euro emango dituzte.



Elkartasun karabanak bihar hartuko du Tinduferako bidea

Durangaldetik 24.696 kilo elikagai eramango ditu Herria auzo elkartearen kamioiak

Gertu dago Durangaldetik Tindufeko kanpamenduetara bidaltzeko laguntza. Herria auzo elkarteak hainbat hilabete daramatza eskualdeko herrietan elikagaiak eta bestelako laguntza batzen. Karabanaren proiektua babesten duten udaletako ordezkariak Herriako ordezkariekin bat egin zuten atzo, Iurretako Ibarretxe kultur etxean emandako prentsaurrekoan.

Elkarteak Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Garai, Iurreta, Mallabia eta Zaldibarregaz adostutako laguntzaren bitartez 37.465 euro jaso ditu. Norbanako anonimo batek 2.000 euro eman ditu. Udalen aldetik, "arazo administratibo bat tarteko", laguntza jaitzi egin den arren datorren urterako "konpontzea" itxaroten dute elkar-tekoek.

Batutako diruagaz laguntza Aljeriako kanpamenduetara eramateko kamioia erosi dute. Soberran gelditu dena elikagaiak erosteko erabili dutela azaldu dute Herriako kideek.

Karabanaren irteera

Elkartasun Karabana osatzen duten zortzi kamioietako bat da eskualdetik bidaliko dutena. Guztira, 300 tona elikagai garraiatuko dituzte. Gainera, lau autobus eta 14 ibilgailu ere abiatuko dira Tindufeko kanpamenduetara. Durangaldetik joango den kamioia, urtero legez, Angel Alejo atxondorak gidatuko du Alacanterraino. Portuan utzi eta itsasontzian Oranera (Aljeria) eroango dute. Ilargi

Erdi Sahararrak batuko ditu ibilgailuak Tindufera eroateko.

Elikagai bilketa

Karabanaren antolatzaileak pozik agertu dira Durangaldean elikagai bilketak izan duen harreragaz: "Krisi sasoi honetan jasotako elikagai kopurua handia izan da", azaldu digute. Guztira, 5.500 kilo batu dituzte eskualdean ipinitako guneetan. Elikagaiez gainera, konpresak ere jaso dituzte. JAED elkar-teak 25 arropa kutxa, umeentzako esnea eta zerealak eman ditu. Bilketa egiten lagundu dieten denek eskerrak eman gura izan dizkiete Herriatik, baita proiektuan parte hartu duten eskualdeko bizilagunei ere.

Herriako kideek zortzi urte daramatzate eskualdeko karabana solidarioan eta udan Saharako umeak etxeetan hartzeko kan-



Herria auzo elkarteko kideek elkartasun karabana aurkeztu zuten atzo.

Eskualdean jarritako guneetan 5.500 kilo elikagai eta konpresa batu ditu Herria auzo elkarteak

paina bultzatzen. Gogoratu dutenez, hiru hamarkada baino gehiago dira saharar herria Tindufeko errefuxiatu kanpamenduetara ihesi joan zela. "Tindufeko egoera

geroago eta larriagoa da. Nazioarteko laguntza txikiagoa daukate eta nazioarteko erakundeek ez dituzte saharar herriagaz hartutako konpromisoak bete". ■ J.G.

Durangaldeko laguntza

- Arroza 2.860 kg.
- Dilistak 4.984 kg.
- Azukrea 5.292 kg.
- Atuna 760 kg.
- Pasta 4.340 kg.
- Babarrunak 5.650 kg.
- Bestelakoak 810 kg.
- Konpresak- 4.000 euro
- JAEDek emandako 25 arropa kutxa, umeentzako esnea eta zerealak
- Herriak jasotako diru-laguntza:

Guztira- 24.696 kg.

39.465 euro

350 lagunek parte hartu dute ezker abertzalearen eztabaidan

Durangaldean 12 herritan zabaldu dute eztabaida eta azpimarratu dutenez, orokorrean, "dinamiko eta parte-hartzailea izan da"

Durangaldean ere hainbat herri-batzar egin da ia zortzi urte amaieratik hona. Hain zuzen ere, 12 herritan zabaldu da eztabaida hori, eta, orokorrean, batzarrak "dinamikoak eta parte-hartzaileak" izan direla adierazi dute.

Ezker abertzaleak "oso positiboki" baloratu du eztabaida prozesua

Azaroaz geroztik eztabaida prozesuan murgilduta egon da ezker abertzalea. Nazio mailako ondorioak atera dituzten honetan, eskualdeko balorazioa ere egin

dute. "Oso positiboki" baloratu dute prozesua. 350 lagun inguruk parte hartu dute batzarretan, eta "hamarnaka iritzi eta ekarpen" jaso direla azaldu dute. Eztabaida "indar erakustaldi" bat izan dela nabarmendu dute: "Askok harriduraz ikusten dute ezker abertzaleak estrategikoki birkokatze duen gaitasuna".

"Aspaldi batzarretara gerturatu ez den jende askok parte hartu" omen du, eta "eztabaida estrukturatu baten premia igarri da", azaldu dutenez. Behin prozesua amaitu denean, ezker abertzalearen kidegoa "zoriondu eta lanean jarraitze zergatik" gura izan dute.

Osatutako eztabaidarako txostena herririk herri banatu dutela adierazi dute, baina, horrez gainera, gura izan duenak dokumentoa Internetetik jaisteko modua ere izan du. Azpimarratu dutenez, Euskal Herri osoan "280.000 deskarga baino gehiago burutu dira eta dokumentuaren inprentako 25.000 ale banatu dira", ordezkari berbetan. ■ J.D.

Txostenak 280.000 deskarga izan ditu Interneten, eta inprentako 25.000 ale banatu dira herririk herri

Inbertsioa gutxienez jaitzi du Mankomunitateak

"Zerbitzuak mantentzea eta inbertsioen atala txikitzea" da Mankomunitatearen helburua

Durangaldeko Mankomunitateak aurten 7,8 milioi euro gaz osatu duen aurrekontua "Udalen egoera ekonomiko gaitzaren ondorio" dela azaldu du Marian Larrauri Mankomunitateko presidentek. Gaineratu duenez, "udalek kuota ez zigorretatik eskatu dute". Zerbitzuak mantentzeari "lehentasuna" eman gura izan diote.

Gastuaren jaitzierak inbertsioen diru-atalean eragin zuzena izan du. Zaborra batzeko zerbitzura 200.000 euro bideratu dituzte. Kontenedoreak eta kamioia erostea aurreikusitako dute. "Soberakinekin baliteke beste inbertsioen bat egitea".

Botazioa

Aurrekontuen plenoan EAJk proposatutako plan ekonomikoak jeltzaleen aldeko botoak jaso ditu. PSE-EE abstentitu egin da, "aurre-

kontuak aurrera ateratzea ahalbidetzeko". "Akordioetara heldu gara EAJgaz eta horregatik abstentitu gara", azaldu du Pilar Riosek. Lorea Muñoz Izurtzako alkatea ere abstentitu egin da "informazio nahikorik" ez duelako. Aralarrek pro-

Durangaldeko Mankomunitateak aurten 7,8 milioi euroko aurrekontua dauka

posamenaren kontrako botoa eman du. Iker Urkizak dionenez, ez datoz bat "Mankomunitate erduagaz". "Askotan herri mailan dauden zerbitzuekin bikoiztu eginen dira", kritikatu du. "Udalen artean bada sasoia zelako Mankomunitatea gura dugun eztabaidatzeko". ■ J.G.

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Podologia
 Herriko gudarien kalea, 10 - beheak
 48200 DURANGO
 Tel./Faxa: 94 621 54 04

IURRETA



Oinezkoentzako lurpeko pasabidea egin gura dute Arriandin.

Gobernuaren udal aurrekontu proposamena

Gainerako alderdiei aurkeztu diete egitasmoa, eta laster egingo dute udalbatzarrean bozketa

Inbertsioetarako atala ahal duen bestemantentzea helburu duten aurrekontuak aurkeztuko dituela aurreratu du Iñaki Totorikaguenak alkate jeltzaleak. Orokorrean, baina, Totorikaguenak dionez, Udalean 2010ean itxaroten duten diru-sarreraren murrizketa dela-eta, iazkoagaz alderatuta %10 murriztuko duten aurrekontua proposatuko dute osoko bilkuran.

Diru-laguntzen eta gastu arrunten atalean %25eko murrizketa izatea jasotzen du Gobernuaren proposamenak

Gastu arrunten eta diru-laguntzen atala %25 murriztea jasotzen du Gobernuaren proposamenak. "Horietan artazia sartu barik ez zegoen gastuak eta sarre-

rak parekatzeko modurik", azaldu du alkate jeltzaleak. Inbertsioen artean, dionez, Askondo inguruko zabor-edukiontzia guztiak lurperatzea eta lurperatutako zaborontzi-gune berriak ipintzea jasotzen du, herrigunerako inbertsio nagusi legez, proposamenak.

Amilburuko lurpeko pasabidearen ingurua mugikortasun arazoak dituztenentzat moldatzea ere jasotzen du, tunelaren alde banatan igogailuak ipinita: 200.000 euro inguruko inbertsioa litzateke. Bestetik, Arriandin ere lurpeko pasabide berri bat egitea jasotzen du proposamenak: 900.000 euroguz. Errepidea gurutzatzeko pasabide seguru baten beharra larria dela nabarmendu du Totorikaguenak. Bestetik, gizarte laguntzak mantentzeko "esfortzu berezia egin" dutela dio alkateak. ■ I.E.

OTXANDIO

Toponimia liburua martxoan aurkeztuko dute

Otxandioko toponimia jasotzen duen liburua martxoaren 5ean aurkeztuko dute, Kultur Etxean, jakinarazi dutenez. Aurkezpen ekitaldian liburuaren egilea den Asier Astigarraga izango da, bes-telako eragile eta udal ordezkari-eriaz gainera.

Liburuaren 1.000 ale inguru argitaratuko dituzte, eta dagoeneko martxoan aurkeztuko duten liburua inprimatuta eta Udaletxean dagoela adierazi dute udal ordezkariak.

Astigarragaren lanak Euskaltzaindiaren laguntasuna ere jaso du. Jose Luis Lizundia euskaltzain osoa Onomastika Saileko arduraduna da, eta bera ibili dalana gainbegiratzen eta behar zenean laguntzen.

Toponimia liburua, batez ere, herriko baserri, kale eta auzoen izenen hiztegi bateratua izango da: "Horrelako lan bat eginda edukitzea garrantzitsua da guztiondako; horrela izenen erabilera ez da akatsik egingo, eta denok eredu bera jarraituko dugu", adierazi du Aritz Otxandiano alkateak. ■ J.D.

Ortu ekologikoak atontzen hasi dira Iturburu inguruan

Udarako edo uda osterako erabilgarri gura dituzte ortuak. Ordenantza garatzen hastekoak dira laster

Hasita daude Iturburu inguruan ortu ekologikoak egokitze lanen lehenengo faseko lanak egiten, eta datozen asteetan udalbatzarrean eztabaidatuko duten Gobernuaren 2010eko aurrekontuan lanen bigarren fasea finantzatzeko atala egokitzea ere aurreikusi dute.

Herritarrentzako aisialdi aktiborako aukera berria eskaintzeko helburua dutela ortu ekologikook azaldu du Totorikaguenak alkate jeltzaleak: "Langabezia daudenei, adinekoei eta gizarte-bazterketa bizi dutenei ortuetan bildutakoagaz eurentzako behar dituzten ortuariak lortzeko aukera eskaintzea". Guztira, 40 sail inguru egokituko ditu Iturburu inguruan

Udalak, herritarrek bertan ortu-erriak lantzeko aukera izan dezaten.

Ortuen erabilera eta kontzesioa arautuko duen Ordenantza lanak egiten dituzten bitartean garatzen joatea aurreikusi dute Udalean. Ordenantza 2010eko lehenengo seihilekoan osatzea da Udalaren asmoa. Udarako edo uda osterako erabilgarri gura dituzte Urkiola landa garapena elkar-teak sustatutako ortuak. ■ I.E.

Urteko lehenengo seihilekoan ipiniko dute indarrean ortuen erabilera eta kontzesioa arautuko duen ordenantza

ZALDIBAR

"Pozik" tonbolak izandako erantzunagaz

Tonbola solidarioan 8.560 euro batu zuten barikuan, iaz baino 300 euro gehiago



Tonbola solidarioan, guztira, 1.600 sari izan ziren eskuragai.

Barikuan, urtero antolatzen den tonbola solidarioan 8.560 euro batu zuten, iaz baino 300 euro gehiago. Blanca Onaindia arduradunetako batek adierazi duenez, "pozik" daude "jendeak emandako erantzunagaz". Bizi dugun egoera ekonomikoa kontutan izanda ez zuten iazko kopurua handitzerik itxaroten eta hala gertatu da, beraz, "eskerrak" eman dizkiete parte hartu duten guztiei. Astero parrokiaren batzen den emakume taldeak antolatzen du tonbola solidarioa, eta aurten 28 urte bete ditu. Barikuan, guztira, 1.600 sari zuden, eta gehienak banatu dituzte; emakume taldeak jositako mahai-zapiak, etxean egindako mermeladak, koadroak, umeentzako kojina... Batutako dirua Zaldibarko hiru misiolari Kolonbian, Haitin, Perun eta Boli Kostan dauzkaten proiektuak laguntzera bideratuko dute. ■ G.A.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

DIBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • alkimax@alkimax.com

LORAZAINTZA



Belarra mozteko makina (eserlekuarekin)

Hostoentzako haize-makina



Area

Sasiak garbitzeko malu-makina



Biobirringailua

ERAIKUNTZA



Plataforma jasogailua



Minidumperra



4 x 4 dumperra birakaria eta bere kabuz kargatzekoa



Mini zamagailua



Mini hondegailua 1.800kg

GARBIKETA



Garbigailuak



Xurgagailuak



Lur-garbigailuak



Kale-garbigailuak

www.alkimax.com

ABADIÑO

Energia aurrezteak helburu duten tokiko 10 inbertsio

Estatuko Tokiko Inbertsioetarako 779.000 euroko diru-laguntza jasoko dute hamar egitasmok

Hamar proiektu aurkeztu zituen Udalak eta Gobernuaren Tokiko Inbertsioetarako Eplanaren diru-laguntza jasotzeko guztiak onartu ditu Estatuak, Jose Luis Navarro alkateak atzo agertu zuenez. Energia aurrezteari lotutakoak dira guztiak.

Jose Luis Navarro: "Epe luzerako onura ekarriko duten inbertsioetarako baliatuko dugu diru-laguntza"

Talde Independienteko alkateak nabarmendu duenez, epe laburrean amortizatuko diren eta epe luzerako onura ekarriko duten inbertsioetarako baliatuko dute diru-laguntza publikoa; "herritarren ongizatea eta ingurumena hobetzera, eta energia garbiak erabiltzera", Navaroren berbetan.

Energia aurrezteak helburu nagusi duten lanak burutuko dituzte hamar eraikin publikotan; ura berotzeko eguzki energia bidezko sistema ipiniko dute Astolako igerilekuan, eta Mendiola eta Gazteluko ur-biltegietan kontsumitzen den energia eta San Prudentzio kaleko erretiratuen etxekoa lortzeko eguzki energia bidezko sistemak ipiniko dituzte.

Diru-laguntzaren atalik handiena, Traña-Matienako Eskolan elektrizitatearen efizientzia hobetzeko sisteman inbertituko dute: 126.000 euro. Bestetik, Navarro alkateak dioenez, "igerilekuko ura berreralbiltzeko sistema" ipiniko dute, "proiektu izar" moduan: igerilekuko ura aldatzean urtean errekaratzen diren 14.000 m³ ur berreralbiltzeko sistema ezartzeko proiektuak 110.000 euroko aurrekontua dauka. ■ I.E.



Navarro alkatea, proiektuei buruzko azalpenak ematen. I.E.

Gaztelurako bidea itxita, konponketak direla-eta

Lanek iraungo duten bi hiletan, Garbi fundiziora doan bidea erabiltzea gomendatu du Udalak

Luiziak eragindako errepidearen egoera kaskarra konpontzeko lanetan hasi dira Gaztelua auzora doan bidean. Lehenago ere konponketak izan dituen bidea da Gaztelura doana, eta Udalak aurre-

Aranekua eta Sakonekua baserrien arteko bide zatia itxita egongo da lanek iraungo duten bi hile inguruan

kontuetan jasotako proiektua da errepidearen konponketa.

Otsailaren 15ean hasi zituzten lanak, eta Udalak jakinarazi duenez, irauten duten bi hilabete inguruan aldatzeko eragingo dituzte lanek auzoko trafikoa. Hain zuzen ere, Aranekua eta Sakonekua baserrien arteko bide zatia itxita egongo da lanek irauten duten bi hilabeteetan.

Ohiko bidearen ordez, Garbi fundiziora doan bidea erabiltzeko gomendatu die Udalak Gazteluko auzotarrei. ■ I.E.

BERRIZ

Autoestimua lantzeko ikastaroak

Adinekoen zuzendutako autoestimua ikastaroak antolatu dituzte Berrizen. Datorren egunean dute azken saioa, eta parte hartu gura duenak hirugarren adinekoen egoitzara jo behar du.

Marisa Bouzas arduradunetako batek adierazi duenez, "adinekoen autoestimua gabiltzanean hiru aspektu eragiten dute, batez ere; osasun faltak, formazio faltak eta kulturak: gaur egun telefono mugikorrik ez daukana edo ordenadorerik ez darabilena atzean gelditzen da". Ikastaroetan hiru arlo horiek landu eta aholkuak ematen dituzte. Bouzasek dio ahal den neurrian eguneroko egitekoetan "norbere autonomia mantendu" behar dela, eta "gure mugak ezagutu eta onartu behar ditugula". ■ G. A.

Bouzas: "Ahal den neurrian autonomia mantentzeak autoestimua hobetzen du"

Aralarren proposamenari baietz Bengoak

Herriko osasun zerbitzuan giza-baliabideak berrantolatzeak hartzen dituzten erabakietan "hirigintza eta biztanleriaren garapena kontuan hartzea" eskatu zuen Aralar alderdiak joan zen barikuko Gasteizko legebiltzarreko osoko bilkuran. Zelaieta eta Matienako osasun zentron berrantolaketari dagokionez, hartutako erabakia "behin-behinekoa izan dadila eta etorkizunean herriak izan dezakeen hirigintza garapena eta banaketa kontuan hartu ditzatela" eskatu dio Dani Maeztu legebiltzarkideak Rafael Bengoa osasun sailburuari.

Aralarren proposamenagaz bat egiten duela eta "gaur egun gainezka dagoen Zelaietako osasun zentron inguruan hausnarketa" egiteko konpromisoa adierazi zuen Bengoak. Eskaria kontuan hartuko dutela erantzun zuen Rafael Bengoa. ■ I.E.

Zelaietako osasun zentron inguruan hausnarketa egingo dutela esan zuen Bengoak

Eguneko irteerak antolatu dituzte nagusientzat

Urtean zehar adinekoen zuzendutako hainbat ekintza izaten dira. Datorren asteazkenean, esaterako, Urretxuko erleen museo-ara bisita egiteko aukera dago. Interesatuak otsailaren 22rako jubilatuen egoitzan izena eman behar dute. Museoa, erleen bizi-modua ezagutuko dutela aipatu

Urretxuko Aikur museo bisitatzeko aukera dute nagusiek otsailaren 24an

du Marisa Bouzas bidaien antolatzaileetako batek. Martxoaren 11an, berriz, *El Correo* egunkaria joateko aukera emango dute, egunkaria nola egiten den ikusteko. "Interesatuak ahalik eta arinen apuntatu behar dira", adierazi du Bouzasek.

Irteera hauek arrakasta izaten dutela aipatu du Marisa Bouzasek: "jendea halakoetara animatzen da, eta 25 bat laguneko taldea osatzen dugu" ■ G. A.



Zelaieta auzorako sarbidea hobetzeko helburua duen biribilgune berria

Durango eta Atxondo arteko errepidetik Abadiñoko Zelaieta auzorako sarbidea "seguruago" bilakatzeko funtzioa izango duen biribilgunea dihardute atontzen. Lau hilabete iraungo dute lanek. Udaleko ordezkariak azaldu digutenez, otsailaren hasieratik dabilta lanean, eta Bizkaiko Aldundia da 724.000 euroko aurrekontua duen proiektua gauzatzeko dabilena. ■ I.E.

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
GIZO CATALANA OCCIDENTE

katerin ardoak
inaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente Aparaga, 9 - 48215 JURRETA
Tel.: 94 620 22 41



ELORRIO

Eraikin historikoak konpontzeko laguntzak eman dituzte lehenengoz

Obra lizentziaren zati bat ordainduko du Udalak; eraikinetako bat Arezpakotxaga jauregia da

Udaleko tasei eta zergei dagoen ordenantzako atal batean balio historikoa duten eraikinak berrizatzeko laguntzeko moduak zehazten dira. Udabaltzarrak lehenengoz ildo horretako laguntza bi onartu ditu.

Batetik herrigunean dagoen Arezpakotxaga eraikinak umedade arazoak ditu eta horiek konponduko ditu; horretarako obra lizentzia gestionatzeko orduan %80ko laguntza (435 euro) jasoko du Udalaren partetik. Bestetik, Urkizua-ren auzoan Askarrakolea base-rian ere berrizatzeko lana gauzatu nahi dituzte eta balio historikoa duenez —Elorrioko Ondasu Historikoen zerrendan sartuta dago— diruz laguntzea onartu du udalbatzarrak; lizentzia-

Arezpakotxaga XVIII. mendeko eraikina da eta ondoan sasoi bateko harresiaren atea du



Don Tello kalean aurkitzen da Elorrioko Arezpakotxaga jauregia.

ateetako bat dago, errege-erregina katolikoaren armarraria duena.

Argindarra hobetuz

Bestalde, Iguria auzoko baserri bitara energia hornidura hobetzeko azpietura berria egingo dute. Baserri horietan bizileku gehiago atera dituzte eta, ondorioz, energia gehiago behar dute. Iberdrolak jakinarazi du gaur egun zonal-

Iguria auzoan baserri bitako energia hornidura hobetzeko azpietura berria atontzeko lanak hasiko dituzte martxoan

de hartan dauden azpiegiturekin ezin duela energia hornidura bermatu. Ondorioz, orain dagoenez gainera, energia hornidurako azpietura berri bat egingo dute. Udalak diru-laguntza eskatu zuen Bizkaiko Aldundian eta 30.000 euroko laguntza jaso dute; guztira 100.000 euro inguru eskatzen ditu obrak. Lanak martxoan hastea dute helburu. ■ J.D.

ren %5 ordainduko du (560 euro) Laguntza abian ipini zutenetik lehenengo bider eskatu dituzte ildo horretako laguntzak.

Arezpakotxaga jauregia XVIII. mendeko eraikina da eta Elorriok dituen jauregietakoko bat da. Ondoan, garai batean Elorrioko hiribildura sartzeko erabiltzen zen

DURANGO

Intxaurren kalea astebetean zabalduko dute

Intxaurren kalea itxita dago urtarilaren hasieratik; ur hornidura eta saneamendu-lanak burutzen dabiltza bertan. Kalea gaur zabalduko dute zegoen aurreikusita, baina otsailaren 26an zabalduko dute.

Proiektuan aurreikusitako lan denak dagoeneko amaituta daude. Intxaurren atzeko partean dauden aparkalekuak aldatu eta, espaloia txikituta, hiru-lau apartalakeku berri sortu dituzte. Horrez gainera, Euskaltel eta Telefonikako azpiegiturak (14, 16, 18 eta 20. zenbakietan bizi direnek) espaloitik ipini ahaliko dituzte komunitateak horrela erabakitzen badu. Bestalde, espa-

Aurreikusitako lanak amaituta daude, baina, bide batez, beste lan bi egiteko aprobetxatuko dute

loitik zihonan Iberdrolaren kanalizazioa txarto zegolea ikusita hitzarmen bat sinatu dute kanalizazioa hori berritzeko. Azkenik, lanen ondorioz euri uren kanalizazioa ere aldatu dute, aurrekoak txarto zeudelako.

Lan horiz gainera beste batzuk ere gauzatu gura dituzte. Horretarako datorren aste bi beharko dituzte. Beraz, Intxaurren datorren barikuan zabalduko dute eta lanak astebete geroago amaituko dira. ■ J.D.

'Teknoskopia' ideia lehiaketako lehen fasea irabazi dute hiru ikasleek

Elorrioko Institutuko 4. mailako hiru ikasle dira ideia lehiaketako irabazleak



Ordenagailu ultraeramangarri bana jaso dute hiru ikasleek.

Elhuyar Fundazioak eta Innobasquek antolatzen dute Teknoskopia gazteentzako ideia-lehiaketa. Oraintsu amaitu da lehenengo fasea eta Bigarren Hezkuntzako Institutuko 4. mailako Ane Azkarraga, Itziar Berrioategortua eta Iraia Telleriaren bloga (*Darwinen oroitzapena Elorrioren* izenekoa) izan da irabazlea. Ordenagailu ultraeramangarri bana jaso dute hiru ikasleek.

Lehenengo fasean irabazle izan ez direnek lehiaketako bigarren fasean parte hartzeko aukera izango dute. Otsailaren hasieran abiatu dute bigarren fasea, eta talde guztiek hasieratik hasi beharko dituzte berriro blogak.

MALLABIA

Langabezia %10,67koa dela jakinarazi du Udalak

Datuek diotenez, 2009ko irailean 30 emakume eta 35 gizonetako zeuden lanposturik barik

Udalak zabalduko datuen arabera, langabezia %100 hazi da herrian, 2008ko datuekin alderatuz gero. Durangaldea da langabeziarik gehien astindu duen eskualdea Bizkaian, eta horren ondorioak nabari dituzte herrian, Mallabia puntu bi azpitik dagoen arren.

Mallabitar ia guztiak lanean egotetik %10,67ko langabezia tasa izatera pasatu dira. 2009ko irailean 30 emakume eta 35 gizonetako agertzen ziren INEMeko zerrendetan, kontuan hartuta zerrenda horretan ez direla agertzen une horretan formazio ikastaroren

baten parte hartzen dabiltzanak. Udalak jakin eragin dituen datuen arabera, adinez aurrera egin ahalagoa gaitzagoa da lana aurkitu gura dutenentzat.

Arazoa larritu egiten da kontuan hartzen badugu laguntza soziala ere murriztu egin dela. Ondorioz, udalak orain arteko gizarte laguntza mailari eusteko ezinean aurkitzen dira. ■ P.M.

Mallabiko herritarren %10,67 lan barik dagoela diote langabezia datuek

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua
Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

gremioen koordinazioa
urtiaga
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teilu, zeramika, hormigo
erakusketa, salmenta eta ipintzea
Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02

IZURTZA

Erabilera anitzeko eraikina eraikitzeke galdeketa

Frontoiaren ondoan hiru pisutako eraikinaren premiarik badagoen galdetu diete herritarrei



Herritarrek eraikinari buruz daukaten iritzia batzen dabil Udala.

izurtzari bizitasuna eman guran, erabilera anitzeko eraikina eraikitzea proposatu du Gobernu Taldeak. Kirol, kultura eta gizarte ekimenak eraikin "egoki" batean antolatzeke eta "kalitateko" zerbitzuak eskaintzeko gune bat herrian premiazkoa dela azaldu du Lorea Muñoz alkateak. Hala ere, herritarren iritzia ere ezagutu gura dute la dio alkateak. *Denon artean* ekimenean parte hartzen duten izurtzarrak ados badaude ere, gainerakoei zer deritzoten jakiteko galdeketa egiten ei dabilta.

"Dagoeneko proiektuaren aldeko erantzun batzuk jaso ditugu, eta aldaketa batzuk ere proposatu dizkigu bat edo bestek".

Eraikin berria frontoi ondoan egongo litzateke. Guztira, hiru solairu aurreikusi dituzte. Lehenengoan txokoa, medikuaren kontsulta, sarrera eta gazteen lokala egongo lirateke. Bigarrenean aldagelak, dutxak, makina gela, rokdromoa eta gimnasia gela. Azkeneko solairuan jubilatuentzako gunea, liburutegi berria eta musika gela jartzea da asmoa. ■ J.G.

GARAI

LTD dekodifikatzailea doan jasotzeko aukera

Otsailaren 25era arteko epea dago eskaera egiteko; baldintza batzuk bete behar dira

Lurreko Telebista Digitalerako (LTD) pausua dela-eta, Udalakisistema berrira egokitzeko dekodifikatzailea jasotzeko aukera eman die herritarrei. Otsailaren 25a da eskaera egiteko azkeneko eguna.

Dohainik eskuratu ahal izango da tresna hori, baina eskatzaileek baldintza hauetako bat bete beharko dute: 80 urte baino gehiago edukitzea, 65 urte baino gehiago eta II edo III mendekotasun mailakoa izatea, eta entzumen edo ikusmenean, gutxienez, %33ko ezintasuna edukitzea.

Elkarteko batzarra

Bestalde, otsailaren 28rako Otea-Loran Elkarteko bazkideak Ohiko Batzarrerara deituta daude. Goizeko 11:00etan hasiko da batzarra, eta tartean aurrekontuak izango dituzte berberak, esate baterako.

Kideen datuak eguneratzeko asmoa ere agertu dute. ■ J.G.

Udalak sistema berrira egokitzeko dekodifikatzailea jasotzeko aukera eman du

ATXONDO

Udazkenerako etxebizitza sozialak prest

Aste Santua heldu aurretik Arrazolako etxebizitza sozialak esleitzeko kontutan hartuko diren ezaugarriak batuko dituen ordenantza kaleratu gura du Atxondoko Udalak. Udazkenerako etxeak prest egongo direla aurreikusi du Udalak, eta David Cobos alkateak azaldu duenez, "uda aurretik etxebizitzak esleitzea da asmoa". Banaketa hori egiteko irizpideak lantzen hasi da dagoeneko Udala.

Arrazolako etxebizitza sozialetarako zerrendak uda aurretik kaleratzea aurreikusi du Atxondoko Udalak

Guztira, lau etxebizitza sozial eraiki dituzte Arrazolan, eta orain azken atonketak egiten dabilta. Cobosek zehaztu duenez, hainbat tamainatakoak dira etxebizitza horiek. Bat hiru logelakoa da, beste batek bi logela dauzka eta bi etxebizitzek, berriz, logela bana dute. Cobosen esanetan, "familia tipologia desberdinen premiak asetzeko" asmoa du Udalak. Interesdunek udaberrian izango dute izena emateko aukera, eta uda aurretik jakingo dute esleipenaren berri. A.U.

Lau etxebizitza dira guztira. Pisu batek hiru logela dauzka, beste batek bi, eta bi pisuk logela bana

MAÑARIA

Herri sarrerako biribilguneko lanak esleituta

Herriko sarreran, harrobien arteko errepide zatian, urte honetan eraikitzen hasiko diren biribilguneko lanak esleitu zituzten joan zen barikuko Udaleko osoko bilkuran. Lanak egiteko euren proposamenak aurkeztu zituzten lau enpresen artean, "proposamen ekonomiko aproposena egin zuelako", Construcciones Lasuen enpresa aukeratu dutela azaldu dute Udaleko ordezkariak.

Lau hilabete irautea itxaroten duten lanak dira herri sarreran eraikiko duten biribilgunekoak. Guztira, 600.000 euro inguruko aurrekontua duen proiektua da barikuan esleitutakoa. ■ I.E.

DURANGALDEA

Adur Aristegi elorriarra atxilotu zuten eguaztenean

Katalunian bi lagun atxilotu zituzten eguaztenean Mossos d'Esquadretako poliziek; horietako bat Adur Aristegi elorriarra da. Katalunian (Gironan) izan ziren atxilotetak, Frantziako mugatik hur. Bigarren atxilotua Jon Rosales getxoxtarra da. Ohiko kontrol batean atzeman ei ziztuzten. Antza denez, zapatuan Gipuzkoan atxilotutako ustezko ETAKideagaz lotura dute atxilotetok.

Bestalde, Alaitz Areitio iurretarrari 17 urteko espetxe zigorra ipini dio Parisko auzitegiak. Beragaz batera, Maite Juarros eta Igor Igartua ere epaitu dituzte. Juarrosi 13 urteko espetxe zigorra jarri diote eta Igartuari zortzikoa. ETako kide izatea eta 2004an Frantziako poliziekin Bagnères de Bigorre herrian izandako tiroketa batean parte hartzea leporatu diete.

DURANGO

Zirkin gimnasioko aldageletan sutea piztu zen atzo eguerdian

Eguen eguerdian, 13:10 aldera, sutea piztu da Zirkin gimnasioan. Aldegelatik ke beltza irtetzen zela ohartu ziren Zirkin gimnasioan zeuden erabiltzaileak. Eraikina hustu eta su-hiltzaileei abisua eman zieten. Ertzaintza, udaltzaingoa, Gurutze Gorriko anbulantzia bat eta su-hiltzaileen lau kamioi etorri ziren. Su-hiltzaileak atzeko partetik (Kurutziaga ikastolaren aldetik) sartu ziren. Su-hiltzaileek 14:00etan identifikatu zuten sorburua: aldageletan piztuei zen, sauna eta solariuma dauden aldageletan. Hamar bat minutuan itzali zuten sua.



Euskal presoek eskubideen alde mobilizazioak izango dira

Durangaldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak mobilizazioak deitu ditu "euskal presoek eskubideen defentsan. Otsailaren 26an Etxeratek herri guztietan hileko azken barikuetan antolatzen dituen kontzentrazioetan parte hartzea deitu dute. Otsailaren 27an Durangoko Epaitegiaren aurrean, 10:00etatik 13:00etara, kontzentratuko dira. Amaitzeko, hilaren 28an, euskal preso politikoen kolektiboaren borrokaldiagaz elkartasunean Zaldibarren egingo den itxialdia amaitutzat emateko udaletxe plazaatik irtengo den manifestazioan parte hartzeko deia egin dute.

ELORRIO

Gaztetxeak 22 urte egin ditu

Elorrioko Gaztetxeak 22 urte bete ditu, eta gaur eta bihar hainbat ekitaldi prestatu dituzte urteurrena ospatzeko. Gaur, 23:00etan, musika kontzertu bi egingo dituzte: Napoka Iria eta Andran taldeek zuzeneko eskainiko dute.

Bihar, 11:00etan Mural Margotua egingo dute Gaztetxean. Ondoren, 12:30ean, dantzarien omenaldia egongo da San Josen, eta segidan trikipoteoa egingo dute herriko kaleetan giroa alaituz. Poteoaren ondoren, 14:30ean, bazkaritara batuko dira kiroldegian. Bazkalostea hainbat jokogaz animatuko dute. 18:00etan urte honetako irudiez osatutako argazkiak ikusgai ipiniko dituzte Gaztetxean. 22:30ean, amaitzeko, Gose eta The Riff Truckers taldeek kontzertua esakiniko dute.



anboto, durangaldeko asteakaria

Egin zaitez harpidedun



harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo anboto@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

BERBAZ >

“Aldaketa klimatikoa ezin daiteke igarri negu bat edo uda bat kontuan hartuta”

Euskalmet agentziako fisikariak, matematikariak eta geografoak koordinatzen ditu durangar honek



Santiago Gaztelumendi

- Fisikaria da
- Euskalmeteko koordinatzailea

Euskalmet eguraldiaren agentziako koordinatzailea da Santiago Gaztelumendi durangarra. Fisikari honek 10 urte daramatza agentzian beharrez. Azkeneko urteotan teknologia alorrean aurrerapen handiak egin direla eta iragarpenak geroago eta zehatzagoak direla dio Gaztelumendik.

Zein da meteorologia agentzia bateko langileen profila?

Hainbat arlotako jendea batzen gara. Eguraldiaren azterketa eta iragarpenean, adibidez, atmosferako fisikan espezializatutako fisikariak egiten dute behar. Irargarpen numerikoan fisikariak eta matematikariak izaten dira, eta klimatologia kontuetan geografoak.

Iragarpenak zenbat eguneko epean izan daitezke fidagarriak?

Hirugarren edo laugarren egunera arte iragarpenak fidagarriak direla esan genezake. Hortik aurrera tendentziei buruz egin beharko

genuke berba. Iragarpenen fidagarritasunak zerikusirik handia dauka egoera meteorologikoagaz. Adibidez, antizikloi egoeran eguraldia nahiko egonkorra izaten da egun askotan, eta asmatzea errazagoa da.

“Antizikloi egoeran eguraldia nahiko egonkorra izaten da egun askotan, eta asmatzea errazagoa da”

Inoiz gertatuko zitzaizun kalera irten eta iragarpena bete ez dela ikustea. Horren inguruko kexa asko izaten duzue?

Gutxitan, baina bai, gertatu izan zait horrelakorik. Baina, esan beharra dago azkeneko urteotan iragarpenak asko hobetu direla. Aurrerapen teknologiko handiak izan dira, eta zehaztasun eta fida-

garritasun handiagoagaz jarduten dugu beharrez. Normalean ez dugu kexa askorik jasotzen, baina normalak izaten dira horiek ere. Azken batean, gure iragarpenak lurralde txiki eta klima aldeetik nahiko konplexu batera daude mugatuta, eta iragarpen orokorrak egitea baino gaitzagoa da leku txikiak egitea.

Zer faktore hartu behar dira kontuan eguraldia iragartzeko?

Baliabide teknologikoak eta giza ezagutzak izatea beharrezkoa da. Radarra, oinaztuak detektatzeko sistema, Meteosat satelitea eta tokian tokiko eguraldia iragartzeko tresnak behar dira, besteak beste. Ezagutza meteorologikoak dauzkaten profesionalek tresna horiek

“Tenporek ez daukate ez oinarri zientifikorik ez arrazionalik”

diotena irakurtzen jakiten dute.

Eguraldiaren inguruan herri-tradizio zabala dago. Esaera zaharrek dionez, “gauko laino gorri, goizeko iturri”. Teoria hauek fidagarriak dira? Badute oinarri zientifikorik?

Ez naiz herri-meteorologian aditua, baina badaude esatera batzuk denbora askoan eguraldia behatzen egon eta gero sortutakoak. Kultura askotan izaten da horrela, eta esaera horiek, gainera, askotan asmatu egiten dute. Badaude bestelako metodo herrikoi batzuk, tenporaketa; tenporek ez daukate oinarri zientifikorik ez arrazionalik, eta ezin dira iragarpen metodo moduan hartu.

Meteorologoek makinaren bitartez egiten dituzue iragarpenak. Zerura begiratu eta iragarpenen bat egiteko gai zarete?

Pena da, baina geroago eta gutxiago. Azken finean, nahiko mundu teknologikoa da gurea, eta radarra, Meteosat eta antzeko tresnak dira XXI. mendean zerura begira-

“Oso gaitza da aldaketa klimatikoa igartzea”

tzeko erabiltzen ditugun “begiak”.

Klima aldaketa igartzen zabilzate? Zer neurritarainoak dira aldaketa horiek?

Hasteko, esan beharra dago oso gaitza dela aldaketa klimatikoa igartzea. Kalean eta komunikabideetan esaten duten aldaketa hori, gure lurraldean eguraldian itxaron daitezkeen aldaketekin dute zerikusia, eta ez aldaketa klimatikoagaz. Egoera meteorologiko zehatzei begira egon beharrez, ikuspuntu zabalagoagaz egin behar da azterketa hori. Denbora tarte handietako tendentziak aztertu behar dira; 30 urte baino gehiagoak. Aldaketa klimatikoa ezin daiteke igarri uda bat edo negu bat kontuan hartuta. ■ A.U.

EKONOMIA[>]

>ABADIÑO

Nekazaritzako elikagaien kalitatearen inguruan behar egiten duten agenteek ezagutzak eta esperientziak elkartrukatu zituzten Kalitatea Fundazioak antolatutako sektore-arte-ko jardunaldian. Angel Rocha, Eusko Labeleko ordezkariak azaldu duenez, bertaratutakoek “oso balorazio positiboa egin dute”.

Denera, jardunaldian 70 lagun inguru batu ziren; horien artean, nekazaritza sektoreko hainbat ordezkari izan ziren (batzorde profesionaleko ordezkariak) eta baita Jaurlaritzako eta diputazioetako ordezkariak ere, Kalitatea Fundazioako ordezkariekin batera. Besteak beste, Pilar Unzalu, nekazaritza sailburua izan zen bertan.

Jardunaldian ezagutzak eta esperientziak elkartrukatu dituzte

Merkatuan dauden 12 Eusko Label produkturi beste bost gehitzeko asmoa dauka Kalitatea Fundazioak

Kalitatea Fundazioak Label produktuak esportatzeko asmoa dauka. Dagoeneko Ibarrako pipermina eta Gernikako piperrak Alemaniako merkaturatu sartu dira. Pilar Unzalu nekazaritza sailburua adierazi duenez, “garai berri honetan garrantzia berezia izango dute; berrikuntzak eta Labela duten produktuak elikadura-katean sartzeko, bai saltoki handietan bai ohiko denden bitartez”. Bestalde,

Eusko Label produktuak nazioarteko merkaturatu



Abadiñon antolatu duten jardunaldian besteak beste, Pilar Unzalu nekazaritza sailburua izan zen.

Kalitatea Fundazioa, olioia, letxuga, txerriaren haragi freskoa, urdaiazpikoa eta besoa Label produktuen barruan sartzeko asmoa du, merkaturatu dauden 12 produktuak ugarituz ■ G.A.

>ELORRIO

Udalbatzarrak aho batez onartu du beharginen mozioa

Udalbatzarrean batu ziren alderdi eta zinegotziek euren “elkartasuna” adierazi zieten langileei

Elorrioko Udalbatzarrak aho batez onartu zuen Ductilor-Fytasako enpresa komitearen mozioa. Mozioa onartuta, udalbatzak “konponbidea laster topatzeko desioa” adierazi eta “lanpostuen defentsa eta behargin guztien eskubideen defentsa” exijitu zuen.

Udalbatzak “lanpostuen eta behargin guztien eskubideen defentsa” eskatu zuen

Zinegotzi guztiek euren elkartasuna adierazi zieten langileei.

Aurkeztutako mozioan langileen eta enpresaren egoera azaldu dute: “Bizi dugun krisi egoera honen erantzulea ez da inondik inora langilegoa, enpresaren kudeaketa desegokia da egoera honen sorburua”. Gainera, enpresak egoerari aurre egiteko disei-

natu duen bideragarritasun planak “langileen eskubideen aurka-koak” direla diote, “soldaten murrizketa, lanaldiaren luzapena, enpresa paktua behin-behinean ez aplikatzea...”.

Ductilor-fytasako langile bati hitza eman zioten bozketaren aurretik: “Udalbatzarren sostengu morala eskertu gura dugu, oraingoz morala bakarrik den arren. Garai latzak datoz eta enpresaburuen prepotentzia salatu gura dugu. Beste sektore batzuk hobera egin dute eta guk gestio txarragatik txarrera egin dugu”.

Beharginek mobilizazioekin jarraitzen dute, igandean Donostian manifestatuko dira.

Beharginek mobilizazioekin jarraitzen dute, igandean Donostian manifestatuko dira

■ kolaborazioa



Aitor Iturriaga LAB sindikatua

Agureak lanean

Jubilazioa edo erretreta 67 urteraino luzatu nahi duten iragarpenak hautsak harrotu ditu. Kapitalaren zerbitzura dauden komunikabideak –gehienak, tamalez– egunik egun aletzen doaz neurri lotsagabe hori martxan jartzeko arrazoi interesatuak. Ongi diseinaturiko estrategia baten barnean, gobernuak, patronala, komunikabideak eta beraien titere diren CCOO eta UGT sindikatuak hasi dira amaiera jakineko obra okaztagarria antzetzten. Krisiaren gerizpean, ur tantek hormigoia zulatzen duten erritmo geldo eta etengabearekin bada ere, gure burmuninak zulatu eta basakeria horren aldeko iritzia –“estado de opinión” delakoa– sustatu nahi dute, pentsio funts pribatuen mesedetan. Gezurra gezurraren gainean, datuen manipulazio maltzurra... denak balio du. Duela hamarkada batzuk 2010a jarri zuten gizarte segurantzaren orekaren mugarri. Urruti antzematen genuen 2010erako, ezinezkoa izango zen jubilazioko ordainsariei eustea. Erratu ziren, bai! Gaur egun, gizarte segurantzak 8.500 milloio euroko superabita dauka! Nostradamus asko ditugunez, orain 2025erako iragartzen dituzte gizarte segurantzaren hil-kanpaiak. Datozen hamarkadetan pentsiodunak edo subjektu pasiboak hazi egingo dira, eta aktibo edo kotizatzaileak murriztu. Arazoa, baina, ez da horrenbeste zenbat aktibo egongo diren, baizik eta zenbat ekoiztuko duten hauek; zenbat aberastasun sortuko duten, alegia. Isilarazi egiten dute, baina, teknologiak aurrera egin ahala langileen produktibitateak gora egingo duela aberastasun gehiago sortuz. Eta garrantzitsuenak: nor dio pentsioak langileon kotizazioekin soilik ordaindu behar direla? Zergatik ezin da bideratu zerga bidezko diru sarreraren atal bat beharrik badago kontu hauek orekatzeko? Autofinanzatu daitezela, gobernuak, errege-etxea, polizia, etabarrak! Pentsioen arazoa jendartearen arazoa da, ez langileona soilik. Gehien dutenak gehien ordaindu behar dute. Aberastasunaren banaketa oinarri izango duen eredu aldaketa behar dugu, eta horretarako ezinbestekoa da politika fiskalaren sakoneko aldaketa. Toledoko paktuko miserableei moztorra kendu eta aurre egin behar diegu, bestela hil eta gero ere kotizatzen jarraitu beharko dugu..

Launa upategiko ardo berrien aurkezpena egin zuten Plateruenean



K.Aginako

Laguardian kokaturiko Launa upategiko ardo berriak aurkeztu zituzten Mikel Garaizabal somelier eta enologoaren eskutik Plateruenean joan zen egunean. Dastaturiko ardoak Oiz 2009 beratze karboniko metodoz ekoizturikoa, Launa 2007ko ondua, Launa Plus 2006ko ondua eta Teo's 2007ko edizio mugatuko ardoak izan ziren. Dastaketa hasi haurretik, upategiari buruzko bideoa ikusteko aukera izan zen; mahastigintzaren ziklo guztia, eta upategiak ekoizte prozesurako dituen instalazio berri eta modernoak ezagutzera eman ziren. Ardo berrien dastaketa jarraitu eta ardogintzan mundura hurreratzeko 60 bat pertsona gerturatu ziren.

KULTURA[>]



ANTZERKIA > EMANALDIA

Protagonista lotsabako eta eszentrikoak kabaretean

Antzerki munduan hamar-kada bi daramazan Teatro Espejo Negro taldearen lana da Elorrioko Arriolan otsailaren 26an, 22:00etan hasita ikusteko aukera daukaguna.

Txontxongiloekin lan egiten duen taldearen *Es puto Cabaret* ikuskizuna da Elorriora dakartena. Eurak hasi arte gehienbat umeentzako ikuskizunetan erabiltzen ziren txontxongiloak helduentzako emanaldietan sartzen aitzindari izan zen El Espejo Negro.

Kabaret "garratz eta adarjotzailea" dela *Esputo Cabaret* azaltzen dute ikuskizunaren sortzaileek, daudenik eta marioneta eszentrikoenak eta lotsabakoek pertsonaia dituenak.

Emanaldiaren protagonista nagusia "transformismoaren izar zahar iraultzailea" deitzen dutena da, Marianna Travelo izenekoa.

Barre lotsabakoa eragiteko helburuz sortutako antzezlanak dela diote sortzaileek, eta ikusleari bere buruaz barre egin dezan gonbita egiten diona.

Txontxongiloak mugiarazten aktoreek jarduten dute, eta sexuaz, erlijioaz eta politikaz naturaltasunez egiten dute oholta gainetik berba: guztiok ere geure buruaz barre egin dezagun.

Ikuslearen barrearen laguntza horretaz gainera, soinua eta argiztapena ere oinarrikoak ei dira *Es puto Cabaret* kabaretaren arrakasta ulertzeko. ■ I.E.

El Espejo Negro
esperientzia
handiko taldea da
lan honen sortzaile

12 Jam Sessiona Plateruenean

Durango Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasle, irakasle, eta ikasle ohiek 'Durang(h)ots' jam session saioa egingo du otsailaren 25ean Plateruenean.



3 Dinero: Elortzaren hirukotea

Madriren sortutako taldea da baterian Ekain Elortza berriztarra daukan Dinero. Bihar, Berrizko Gaztetxean du hirukoteak emanaldia. Ekainegaz izan gara.

MUSIKA > EMANALDIA

Jazzlari eta jazz zaleen bilgune izango da 25ean Plateruena

Durungaldeko jazz musikariak izango dira Jam Session-eko protagonista

Bartolome Ertzilla Duran-goko musika eskolan, musika modernoa ikasgaiaren barruan eskaintzen duten jazz musikaren gaineko saioetan irakasle diren Ander Ertzilla eta Iñaki Jaio musikarien ekimenez sortutako hitzordua da Platerueneko Jam Session saioa.

Jazza eta musika inprobisatua eskaintzeko leku baten beharra nabaritzen zuten: jazz zale eta inprobisatzaileak elkartzeko gunea sortzeko beharra ikusten zuten. Plateruena aukeratu dute, eskolako ikasleak zein ikasle izandakoak eta Durungaldeko jazzaleak batzeko leku egokiena delakoan.

“Oso zabala izaten da jam session bat”, azaldu digu Ertzillak; zer abesti joko diren erabaki eta musikari berriak joaten dira taldera gehitzen. Taldekide kopurua aldagarria da guztiz.

Euren musika konpartitzea da joko duten musikarien helburua

Jazz erreperatorioko kanta standarrak joko dituzte Platerueneko eguen gaueko saioan. Behin kanta standarrak ezagututa, batzuek partitura irakurriz, beste

batzuek buruz ikasita jotzen dute... Sortzen duten musikagaz gozatzea eta jazz herrikoi bihurtzea dute musikariak helburu: euren musika entzuleagaz konpartitzea.

Mahaiak musikarien inguruan batuta, oholtzagainetik barik, entzule artetik jotzen dute musikariak; base erritmikoa markatuko duten bateria, kontrabaxua eta baxu elektrikoa, gitarrak, haizeko instrumentuak, pianoak, abeslaria, biolinak, etab. “Edozein instrumentu jo dezake musika inprobisatua” azaldu digute, “erreperitorioa ezagutzen duen eta jotzera ausartzen den edonor igo daiteke eszenatokira”. ■ I.E.



ANTZERKIA > EMANALDIA

‘Aitarekin bidaian’ gaur Berrizko Kultur Etxean

Gaur, 22:00etan, Berrizen eskainiko du Hika Teatroak urrian Durangon aurkeztu zuen lana

Ama hiltzen zaienean elkarregaz bizitzera behartuta dauden aita eta semearen hartu-emanaren istorioa da, aurreko hileetan Durungaldeko beste antzoki batzuetan ikusgai izan eta gero Berrizko Kultur Etxean gaur ikusgai duguna.

Hika Teatroa taldearen azken lana, *Aitarekin bidaian*, gozatzeko aukerarik izan ez duenak, beraz, gaur 22:00etan Berrizen du aukera.

Amari emandako hitza betetzen saiatzen den semea da antzezlanaren protagonistetako bat: aita

zaintzeaz arduratzea. Aita, baina, dagoeneko ez da amak ezagutu zuen gizona. Memoria galtzea dakarren gaixotasunak jota dago. Patxi semeak arazoak dauzka bere eguneroko hartu-emanetan.

Dramarako osagai guztiak dauzkan lana izanik ere, eta erreallitate gogorra islatzen duen arren, umorerik ere badu *Aitarekin Bidaianek*. Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurrek idatzitako gidoian irribarrerako tarteak ere badago, eta Jose Ramon Soroiz eta Joseba Apaolaza Jabier Muguruza ikusi eta entzutekoa bai. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Jose Julian Bakedano Zinegilea

Paradiso

Idazlea izan zen Jose Lezama Lima kubatarra (Habana, 1910-1976). Batez ere poesia eta saiakera egilea izan zen arren, 1966. urtean argitaratu zuenetik nazioartean oihartzun handiena izan duen bere nobela *Paradiso* izenekoa da.

Errealitate sekretu, intimo eta aldi berean anbiguo bati buruzko kode, enigma, aipamen, parabola eta alegoriaz beteta dago bere lan kulturala. Idazketaren erotika garatu zuen, eta estilistika estrukturalistaren korrante europarrari aurreratu zitzaion horrela. Bere saiakerak irudimentsuak, poetikoak eta irekiak dira: testu eta irudien isla dira.

Paradiso nobela da egilearen obra nagusia, eta XX. mendeko obra nagusienetako bat da kritikari askoren ustez. Bere ibilbideko ezaugarri barroko, sinboliko eta inizatiko guztiak biltzen ditu liburuak. 1970ean kaleratu zuen Era argialetxe mexikarrak, Julio Cortazarrek eta Carlos Monsiváisek zaindutako edizioan.

Liburuak homosexualitatea lantzen duela argudiatuta, “pornografiko” legez izendatu zuen liburu Kubako agintaritzak bi urte geroago. Iraultzaren kontrako ekintzak egotzita, 1971. urtean izan zuen salaketaren aurrekaria izan zen aipatutakoa; bere bizitzaren azkeneko urteak mingostu zizkiona Lezama Limari.

Euskal familia bat da *Paradiso* liburuko protagonista, eta Farra-luqueri buruzko kapitulua da kontakizunik erotiko-falikoena. Bere eskultura ezagunenetako bati pertsonaia horren omenez ipini zien Vicente Larrea artistak izena.

Mundua metaforen eta irudien bitartez azaltzeko sistema baliatzen du Jose Lezama Limak: “irudia ikustezina den mundu baten erreallitatea da” bere esaldi ezagunak laburbiltzen du hori.

1970eko hamarkadako literatura hispanoamerikarraren kongresu batean adierazi zuen Lezama Limak Borges, Cortazar, Ibar-guengoitia, Múgica Lainez eta bera lako euskal jatorriko idazleak gainerakoengandik desberdintzen zituen, hain justu ere, hizkuntzaren erabilera berezia zela.



TABIRA BITXIDENDAK zozketatutako erlojuaren irabazlea: **Olatz Elortza** (Durango) Zorionak eta eskerrik asko parte-hartzaile guztioi!



MUSIKA > ELKARRIZKETA

Kontzertu asko zabilzate azkeneko hileotan eskaintzen, eta irrati eta telebistetan ere eskaini diote zuen musikari tarterik: ate asko zabaldu dituzue.

Bai, baina gainerako talde guztiek egiten duten baino ez dugu egin; tabernetan jotzen hasi eta diskoa ahal dugun beste zabaltzen saiatu. Bestetik, musika lehiaketetan ere jo dugu, eta irabazle aukeratu gaituzte bitan. Urtebetean 50 kanta genituen sortua, eta horietariko onenak diskoan batzea erabaki genuen.

Asko goraipatu dute disko berria.

Bai. Promozio ona egitea lortu dugu, txikia den arren gudan konfiantza handia duelako gure diskoetxeak. Egia da, bai, oso harrera ona izaten dabil diskoa.

Kontzertuak eskaintzeko aukera asko sortzen zaizkizue. Estatuko hainbat hiriburutako aretoetan izan zarete.

Leku, jende eta egiteko era berriak eza-gutu gura nituelako etorri nintzen Madriler, eta hiru hileotan Galizia, Cadiz, Burgos, Salamanca, Bartzelona, eta Alacanten jotzeko aukera izan dugu: oso pozik nago 18 kontzertu eskaini ahal izan ditugulako bi hilabete hauetan.

“Disko berria aurkezteko 18 kontzertu eskaini ditugu azkeneko hile bietan”

“Gogo itzela daukat Berrizko lagunei Madrilen zertan nabilen erakusteko”

Madriko El Sol aretoan ere joko duzue.

Aurkezpen biraren amaiera moduan pentsatu dugu El Sol aretoko martxoko kontzertua. Bira honetako zuzenekoak areto txiki eta handiagotan ere egin izan ditugu: Burgosen, esaterako, leku nahiko handian jo genuen, eta joan zen barikuan, Toledon, oso leku txikian jo genuen. Jendearen harrera beroa izan da leku guztietan, eta oso pozik gaude.

Tartean, zapatu honetako Berrizko Gaztetxeko kontzertua lotzea lortu duzue. Berezia izango da kontzertu hori, ezta?

Oso berezia, etxera buelta izango delako: gogo itzela daukat lagunei zertan nabilen erakusteko. Urteak dira etxetik kanpora, munduan zehar bueltaka, eta etxean aurkezteko gogo berezia daukat. Aurrerago, Bilbo edo Donostian kontzerturen bat lotzen saiatuko gara. Berrizen, lagunentzat gura nuen kontzertua egin, baina azkenean badirudi zer edo zer zabalagoa izango dela biharkoa.

Gaztetxe horren inguruan sortutako taldeetan hasizinen, eta kontzertu asko eskaini izan dituzu bertan. Zer gomuta ekartzen dizkizu oholza horretara berriro igotzeak?

Nire taldekide izandakoak ere bertan egongo dira biharko kontzertuan, gainera; Hyssopus eta Seiurteko taldekide eta lagunak. Poz handia da euren aurrean kontzertua eskaini ahal izatea. Nigatik balitz, urtero bueltatuko nintzateke Berrizko Gaztetxean jotzera. Espero dut Dineroko taldekideek ere Gaztetxea eta bertako giroa gustuko izatea, eta nahiz eta areto oso handiak bete, urtero Berrizera “eskapadaxo” bat egin ahal izatea.

“Hiru musikari oso energikoren baturaren emaitza da Dinero”

Bihar, otsailaren 20an, Berrizko Gaztetxean du Ekain Elortza bateria-jotzaileak orain hiru urtetik Madrilen duen proiektu nagusia zuzenean erakusteko aukera: beragaz Dinero taldea osatzen duten Sean eta Rubi, bere lehenengo taldeen sorrera ikusi zuen Gaztetxera ekarriko ditu Ekainek: bereizgarri nagusia dutena egitera datoz, “kontzertua jai handi bilakatzera”



Nondik ibili zara azkeneko urteetan? Hemeretzi urte neuzkala etorri nintzen bateria ikastera Madriler; bi urte egin nituen eskola batean, eta Los Angelesen egon nintzen beste urtebete. Ondoren beste urte bat Madril eta Berriz artean egin nuen; tartean Kuba eta Argentina-ra bidaiak egin nituen. Hogeita zazpi urte beteko ditut laster; zortzi urte dira bide hau hartzea erabaki nuela.

Dinero duzu orain proiektu nagusia? Diskoa kalean dago, eta momentu honetan Dinero da lehentasuneko proiektua, bai. Noizean behin ordezkapenak egiten

ditut Alex Ferreirarekin, eta Mäbu izeneko beste proiektu batean ere banabil.

Dinero taldeari buruz, zuzeneko oso indartsua duzuela nabarmetzen dute askok. Zuk zer nabarmenduko zenuke? Kontzertua festa bat dela, batez ere, eta hiru musikari oso energiko elkartu gara. Nik Estatuan asko lantzen ez den rock mota egiten dugula deritzot. Gehinek rock oso gogorra edo pop oso lasaia egiten dute, eta gu apur bat erdian gaude: ez da oso gogorra, ezta oso biguna ere. Dantza egiteko kontzertuak izaten dira, entzuleak asko disfrutatzen dituenak.

Orain arte ez duzu Dineron lantzen duzuna lako estiloetan jardun, ezta?

Ez, baina egia esan oso natural sentitzen dut orain egiten dudana: hiruon batura da diskoak. Dinerogaz ere, nire erara jotzen dut bateria, ez dut ezer aldatu. Oso gustura nabil publikoaren erantzuna oso ona izaten ari delako. Jendea aurrean dantzan ikustea poztekoa da benetan.

Gaztetxean noiz jo duzu azkenekoz? Orain urtebete, Gaztetxearen urteurrenean, Hyssopus eskaini zuen kontzertuan ezin izan nuen jo, gripeagatik. Labost urte izango dira igual... ■ I.E.



Madrilen jaiotako hirukoa: Sean, Rubi eta Ekain

Sean Marholm, Rubi Giménez eta Ekain Elortza dira Dinero, edo, Ekainek dioen moduan, “hiruren batura da Dinero”. Berriztik Madriler 2006ko azaroan joan zen Ekain, eta Alacantetik Madrilerako bidea hartu zuten, aldi berean, Sean eta Rubi ere. Bateria-jotzailea topatzen zebiltzala, Interneten iragarkia ipini zuten Sean eta Rubi, eta eskaintzari erantzun Ekainek: 2007ko ekainean ezagutu zuten hiruek elkar. Hiru urte egingo dituzte laster elkarregaz

musika egiten. Ekainean elkar-tu eta hilabete geroago abestiak grabatzen hasita zeuden. Make-ta hura, kantak zelan entzuten ziren proba egiteko eta lagunei erakusteko helburu hutsez egin zuten. Pentsatu bako arrakasta izan zuen, baina, eta ateak zabaldu eta zabaldu dabilza ordutik. Tabernetan jotzen eta lehiaketetan parte hartzen hasi ziren, eta Dinero izeneko diskoagaz Espainiako musika kritikari askoren goraipamen eta proposamenak jasotzen dihardute.

DANTZA > LEHIAKETA

Bi kategoriatan banatuta aurtengo edizioan, 15 dantza talde amateur dira Akadantz izeneko Elorrioko Arriolako lehiaketan jardungo dutenak. Kale-dantza gehienak batzen dituen new style kategorია izango da batetik (funky, house, jazz, urban dance, hip-hop...), eta break estiloan (locking, popping) bil-tzen direnak bestetik. Iazko emanalditik ikasitakotik erabaki dute lehiaketa bi sailetan banatzea: break dantza eta bestelako kale kulturaren adierazpen direnak bereiztea pentsatu dute antolatzaileek bigarren ediziorako.

Iazko lehenengo aldian bederatzita talde inguru lehiatu baziren, 15 dira aurtengo euren parte hartzea

Zaragoza, Euskal Herria eta Salamancako parte-hartzaileak

400 euroko saria izango du kategorია bakoitzeko irabazleak

Kale dantzen lehiaketaren bigarren edizioan 15 talde lehian Arriolan

Otsailaren 20an, 18:00etan hasiko da Elorrioko Arriolan Akadantz lehiaketaren bigarren edizioa

konfirmatu duten taldeak. Gehienak Euskal Herriko taldeak izango dira, antolatzaileek azaldu digutenez, eta hiriburuetako dantza akademietako ikasleek osatutako taldeak izango dira gehienak. Bartzelona, Zaragoza eta Salamancako parte-hartzaileek ere eman dute bigarren edizio honetan izena. Gutxienez bi eta gehienez sei lagunek osatutako taldeak izatea da antolakuntzak ipinitako baldintza nagusia.

Otsailaren 20an, 18:00etan hasita, prestatutako hiru-lau minuturako koreografiak erakutsiko dituzte dantzariak. Dantzariak euren emanaldiak egin eta gero, epaimahaiak bere erabakia jakinarazi arte, musika izango duten entzuleek gozagarri.

Sail bakoitzeko irabazle hautatzen duten taldeak 400 euro eta BreakOnStage 2010 jaialdian parte hartzeko aukera irabaziko du; bigarren sailkatuak 200 euro.



Apirilean Bilbon Bilboko La Casillan, apirilaren 24an da Elorrioko Arriolan antolatzen duten kale dantzen nazioarteko lehiaketa. Antolatzaileek aurreratu digutenez, Danimarkako dantzari bikote biren erakus-

Violadores del Verso, apirilako Bilboko Break On Stage jaialdirako

taldia izango da apirilako hitzorduan; pooping eta stop motion dantza. Bestalde, Violadores del Verso taldeko zaragozarren emanaldia ere hitzartua dute 2010eko BreakOnStage jaialdiaren Bilboko La Casillako ekinaldirako. ■ I.E.

ARGAZKIAK > ERAKUSKETA

'Bizitza Minatuak': errealitate gordinenetan ere, duintasunez

Pertsonen kontrako minen erabilera eta fabrikazioa salatzen ditu Gervasio Sanchez Kordobako argazkilari eta kazetariak prestatutako erakusketak



Iazko azaroan 2009ko Espainiako argazkigintza Sari Nazionala jaso zuen Gervasio Sanchez Kordobako argazkilari eta kazetariaren *Vidas Minadas* erakusketa ibiltar-



riak Berrizko Kultur Etxean egingo du datozen egunetan geldialdia. Martxoaren 12an izango da ikusgai erakusketa.

Munduko hainbat gerratan bertatik bertara lan eginez iruditzen bildutako istorioak dira erakusketakoak, Sanchezen 25 urteko lanaren emaitza. Elkarren kontra borrokan gerran jardundakoek, baina, batez ere, mendebaldeko potentzia militarrek hainbat herrialdetan jaurtitako pertsonen kontrako minek eragindako minaren isla dira argazkiak.

Pertsonen kontrako mina horien erabilera eta fabrikazioa salatzen ditu erakusketak. Asian, Afrikan, Europako ekialdean eta Hegoameriketan egindakoak dira erakusketan bildutako argazkiak. Pertsonen kontrako minen erabilera militar ankerra salatzeagaz batera, egoera latzei aurre egin eta aurrera egiteko gizaikiak duen ahalmenaren erakusle ere badira.

Hain zuzen ere, horixe nabarmendu zuen Espainiako argazkigintza sariaren epaimahaiak: "argazkietan ateratzen dituen pertsonen duintasuna azaleratzeko Sanchezek duen ahalmena". Errealitate gordinak, argazkietan ageritzen diren pertsonen duintasuna iraindu barik erakusten asmatzen duelako argazkilariak. ■ I.E.

Gizakion aurrera egiteko ahalmenaren erakusle dira argazkiak

Sanchezek 25 urtetan gerra bizitako lekuetan hartutako irudiak dira

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

OTSAILAK 19 22:00etan
ARRASATE MUSIKAL BIG BAND
KONTZERTUA. Sarrera doan.

OTSAILAK 24 20:00etan
EGUNKARIA LIBRE
Hizlaria: Martxelo Otamendi
HITZALDIA. Sarrera doan.

OTSAILAK 25 21:00etan
VI. DURANG[H]OTS
Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskola
JAM SESSION. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

EXITUS
Titzina Teatro (Barcelona)

Bazkideentzat doan
Otsailak 21 • 19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

11.51 601 07 76 Artekale, 14 Durango

HITZ

Liburudenda

OSASUN GIDA

AKUPUNTURA



MINKENDU


AKUPUNTURA (orratz gabe ere)
ETA MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • **HIDROLINFA**
Alberto Murua
Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO
tf. 662 270 770

ESKU-TERAPIA



Masajea osteopatiarekin
Aitor
Sasikoa 28 behea - Adikor zentroan
48200 Durango
tf. 619 17 61 53

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PEÑA

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO
tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO
tf: 94 681 99 51

FISIOTERAPIA



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren)...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ
tf. 94 622 55 93

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ
tf: 94 622 50 99



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Murueta Torre, 2D
48200 DURANGO
tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

PSIKOLOGIA



JON ARRUBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz
tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO
tf. 94 620 00 52



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO
tf. 94 466 94 00

Argia saria jaso du di-da komunikazio taldeak



Argia sarietako irabazleak, tartean Gotzon Garaizabal di-dak irabazitakosaria jasota. Dani Blanco

Komunikazioa, diseinua eta itzulpengintzan lan egiten duen Durangaldeko enpresa honek Argia saria irabazi du, publizitate alorrean, AEKren 2009ko matrikulazio kanpainagatik. Esperientzia eta gaztetasuna uztartzen ditu lan-taldeak; di-dak Abadiñon daukan egoitzan izan da Anboto.

AEKren matrikulazio kanpaina saritu dute

Komunikazio eta kazetari-tza esparruan nabarmendu izan diren profesionalak saritzeko ohitura du Argia hedabideak, urterokoa bihurtu den ekitaldian. 2010eko edizioan, Durangaldera etorri da sarietako bat; di-da komunikazio taldeak jaso du publizitate kanpaina onenaren saria.

Urtarrilaren 29an egin zen sari banaketa, Lasarte-Orian. Antolatzaileek komunikazio arloan iaz egindako lanagatik bereizi zituzten saridunak. didaren kasuan, AEKren matrikulazio kanpainarako diseinua izan da baloratu dutena. Hain zuzen ere, *AEK euskara ikasteko biderik laburrena* zen kanpainako lema nagusia; "saria nori eman erabakitzen ari ginela kanpaina bat

oso deigarria egin zitzaigun, euskara ikastea bide laburraren ideia-gaz lotzen zuelako, eta bide batez osasunagaz, maitasunagaz eta lanagaz ere bai", diote Argiakoek. Ezaugarri horietaz gainera, "mezua umorez ematen eta estetika koloretsuz janzten" asmatu zutela azaldu zuten Argiakoek.

Pentsaidatziari dagokionez, Itxaro Bordari eman zioten errekonozimendua, euskarazko hainbat agerkeritan eta literaturan egindako lanagatik. Telebistako saria Eriz Zapirainek zuzendutako *Zai, zoi, bele* dokumentalak eskuratu zuen, Ez Dok Amairuren historia "mimoz eta arretaz" kontatzeagatik. Euskal kulturaren "trasmisiorako tresna" legez aurkeztu zuten antolatzaileek. Irratian, Info 7ko Agin Rezola izan zen

sariduna, bertsolaritzagaz lotutako saioetan "irratigintza fresko, ausart eta probokatzailea" lan-tzeagatik. Azkenik, merezimen-duzko saria Txirri, Mirri eta Txirribitonentzat gorde zuten, euren ibilbide luzea nabarmenduz.

10 urteko ibilbidea

di-da komunikazio munduan urteetako ibilbidea egin duen enpresa da; esperientzia handia daukaten profesionalak osatutako lan-taldea. Guztira, 11 behargin batzen dira, arloz arlo. Eremu bitan dihardu, batez ere: diseinu grafikoa eta publizitatean, eta hizkuntz zerbitzuetan; kasu honetan testuen itzulpena eta marketin linguistikoa landuz. Komunikazioa akzioagaz lotzen dute, eta hortik euren leloa: "komunikakzioa".

Aurten 10 urte beteko ditu enpresa honek, ibilbidean zerbitzua hobetuz eta hasierako nortasunari eutsiz. Durangon hasita, bi urte daroaz Abadiñon. Komunikazio talde euskalduna da (Berbaro elkartearekin kooperatibako kidea da), eta hizkuntza du oinarri. ■ M.O.

Euskara ikastea bide laburraren ideiaz lotzen zuten kanpainak

di-da komunikazio talde euskalduna da, eta hizkuntza du oinarri

“Komunikazioa jarrera bat da”

Gotzon Garaizabalek eta Asier Bilbaok, besteak beste, landu zuten kanpaina saritua. Gotzonegaz izan gara euren lanari buruz berba egiteko.



Zelan baloratzen duzue Argia sari hau?
Guretzat esanguratsua da saria jasotzea. Urteak daramatzagu AEKgaz lan egiten, hainbat eta hainbat kanpainatan (Korrika, matrikulazio kanpainak, bestelako euskarriak...), eta gure helburua mezua ahalik eta ondoen islatzea izanik, lortu dugula adierazten duela pentsatzen dugu. Bezeroaren eta kanpainaren aholkulari eta egileen arteko hartu-eman ona funtsezkoa da; lortu dugu, beraz... horixe dago sariaren beste klabe bat.

Zer berezitasun dauka, zuen ustez kanpainak?
Sari hauetan ez da diseinu aberatsa bakarrik saritzen, mezua bideratzeko modua, ideia, formatua... Epaimahaiak esan duenez, slogan ona, irudi deigarria, alaia eta emozionala uztartu dira, eta euskarri egokiak erabiliz; prentsa, kalea, spota...

Zer irizpide hartzen duzue kontutan kanpainetan?
Ideiak ez datoz berez. Bezeroa ezagutu, helburuak aztertu eta konpetentzia ikertu eta mezua argi dagoenean “ideia zurrunbiloa” egiten dugu denon artean. Bere fruitua ematen du gehienetan. Hor-

tik aurrera finkatu diren euskarri irudia edo estetika gehitzen zaie. Bestalde, produktuak bezeroaren izaera islatu behar du. Ezinezkoa da ez zarena saltzea, horrek ibilbide laburra du.

Itzulpengintza ere lantzen duzue.
Itzulpen zerbitzuaz baliatzen gara egoki komunikatzeko. Esperientzia eta eskarmentu handia du gure itzulpen zerbitzuak. Kanporako itzulpenetaz gainera, barruko lanetarako komunikazio nati-boa egiten dugu, ez itzulpena.

“Komunikazioa”...
Esperimentazioa, sentzakzioa, espakzioa, interakzioa... Guretzat komunikazioa jarrera bat da, gauzak ulertu, interpretatu eta bizitzeko modu bat. Ideia bat edonon jaio daiteke: tabernan, irakurtzerakoan, ametsetan... Komunikazioa akzio bihurtzen dugu.

Zein da zuen lan estiloa?
Gazteak izanik, batzuek urte asko daramatzagu, eta beste batzuek gutxiago. Elkarrengandik ikasten saiatzen gara, talde lanean. Gure arteko komunikazioa ere lantzen dugu etenik barik, funtsezkoa da-eta.



Matrikulazio kanpaina 2009 (Argia saria)

di-dak diseinatu eta ekoiztako errezeta liburua



- Hizkuntza-zerbitzuak
- Itzulpenak
- Sloganak
- Brandinga eta irudi korporatiboa
- Publizitate kanpainak
- Gidak, liburak, aldizkariak, egunkariak argitaratzeko diseinua
- Webguneak
- Enpresetako seinalizazioa
- Telebistako, irratiko eta prentsa idatziko iragarkiak
- Katalogoen, papergintzaren, liburuxken eta kartelen diseinua
- Kanpainen, ekitaldien, erakusketen eta azoken antolaketa
- Argazkigintza



di-dak sortutako arropa marka

Esloganak, diseinuak, eszenografiak eta multimedia



Argia sarietako irabazleak, tartean Gotzon Garaizabal di-dak irabazitakosaria jasota. Dani Blanco

ERITZIA >

Gutunak @

Zer pasetan da Abadiñoako parkean?

Zer pasetan da Zelaietako Galindez parkean? Hori da otsailaren 6ko zapatu goizean geure buruari galdetu geuntsana. Goizean pertsianak altxatu genduzen, eta parkeko belargu-nea ia-ia "tronpo pista" bihurtuta argitu jakun. Osterantzean, zer pentsatu? Igual baten bat gauez etxerako bidea topatu ezinda ibili zela, arbolari buelta eta buelta?

Hurrengo pentsatu genduen: nor izan ete da astakeria hori egin dauena? Abadiño batek be ez ete eban ikusi? Eta ikusi baeban, ez ete zen atrebitu ezer esaten? Zergatik ez eutsan etxerako bidea erakutsi? Eta gero esango dogu Abadiño asko maite dogula, eta inguruan ez dogula AHTrik nahi. Ezta geuk be! Baina ezta tronpo pistarik be etxe aurreko parkean. Eta tronpo pista ez denean, festa ostean sarri da zer edo zer: plastikozko edalontziak nahinon, txiz usaina izkina guztietan, gorotz ederrak han edo hemen... Bale, gorotzak konposta egiteko balio deusku, baina plastikozko edalontziak... Eta txarrena da, ume txikiak daukaguzenontzat, festa ostean parke inguruan ibili behar badogu, kontuz ibili behar dogula, sarritan kristalak eta edalontziak gelditzen direlako belarretan, bide izkinetan... Halan be, herriko jai egun baten ostean bada, goizean goizetik patruila bat ibiltzen da inguruak garbitzen. Baina osterantzeko zelebrazio bat izaten denean, askotan festa gaupasa bihurtzen da, eta bestelako arazo batzuk be sortzen dira.

Bestaldera begiratzen jarraitu behar dogu edo abadiño-erok apur bat pentsatu eta zerbait egin behar dogu? Gutun hau sinatzen dabena be festazalea da, euskaltzalea be bai, ez dau AHT gura, ekintza alternatiboen alde dago... Baina errespetetan doguz konbentziarako oinarritzko lege batzuk?



Joseba Mirena Azkarate (Abadiño)

Klik batean @

GR229a itxita

Durango

Anbotoko irakurle batek ondorengo argazkia helarazi digu. Ibaizabal ikastola ondotik doan GR229 bidetik jende asko pasia da ematen edo bizikletan ibiltzen joaten dela azaldu digu. AHTaren obren eraginez, bidea itxi egin dutela salatu gura du. Leku horretatik ibiltzen direnek bidea moztearen eragina jasaten dabiltzala ezagutzera eman digu Anbotoko irakurleak.



Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia



Carmen Sanpedro
Eusko Alkartasuna

Bizilagun berriak

Orain dela lau hilabete, gutxi gorabehera, Zaldibarrera errumaniar talde handi bat ailegatu zen. Talde honek ez zuen etxebizitza bat bilatu, zuzenean etxe zahar bat okupatu zuen.

Dirua eskatzen dute den-den ateetan, elizako sarreran, eta pertsonen mugimendu handia ikusten da. Beste alde batek, haien baldintza higienikoez eta osasunak arduratzen gaituzte. Haien artean ume batzuk daude. Ume horiek eskolara joan behar dira; beraz, hasi dira pausoak ematen umeak Herri Ikasketxera joateko.

Udalak informazioa eman behar dio jendeari denon artean irtenbide on bat bilatzeko

Gai honek ez du herritarren artean harrera ona izan. Galdezen da: arrazismoa da?

Geure artean, Zaldibarren, etorkin asko bizi da; errumaniarrak, marokotarrak, sahararrak, portugaldarrak, senegalarrak... Ez da inongo arazorik izan, umeak ikastetxera joaten dira... Horregatik galdetzen dugu: ez da izango bestelako egoera bat, desberdina? Talde hau prozesu legal baten sartuta dago, etxea uzteko. Gainera, non egiten dute lan? Nondik ateratzen dute dirua? Galdera ako dadiltza jendearen artean.

Zerbait egin behar da Zaldibarko herritarrek lasaitzeko, eta gauzak argitzeko. Udalak informazio asko eman behar dio jendeari, lasaitzeko eta gauzak ulertzeko, ia denon artean irtenbide on bat aurkitzen dugu denontzat. Mundua guztiona da, eta denok bizitza duin bat bizitzeko eskubidea daukagu, baina ez ditugu gure ardurak ahaztu behar. Eskubideak bai, baina betebeharrak ere bai.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 diruz lagundutakoa



anboto
 durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
 2010eko otsailaren 19a - 9. urtea - 362 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez eta Kepa Aginako.

Gremioen gida



Iturgintza

Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa

Baimendun instalatzailea

Arlandi ITURGINTZA

Arandi, 16 - behea, 3. aldea
Sakelekoa: 94 681 58 54
Faxa: 94 681 61 58
lurreta

Elektronika

URBASA Elektronika

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SORBUA - BIDEA - BUKATA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAR

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic

Televis
Instalazioak
Obrak

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 lurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Argiztapena

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Eraikuntza

arlax

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B
DURANGO

Sakelekoa: 815 77 91 70
805 77 03 57

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN OHTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



Lorazaintza

Jardines Patxi
Florategiak

Mantenua eta Diseinua
Lantaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutx, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Arotzeria

EGUIA S.L.

AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653



Taldea katea: 54 • 48200 Durango • info@cominterferbeguia.com

Ubide
iturgintza

188 PK
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskamail.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Garbiketak

AZKARGI
GARBIKETAK

Builago eta komunitate mantentzeak
Obrak osteko garbiketa
Kristallizatuak eta alferriak

Goleta, 46 - 2. esk - Eorrio - 615 79 12 16

Informatika

elaia IT

Information Technology S.L.

ZURE SISTEMA INFORMATIKOA
EZ DA UMEEN JOLASA

- TIC aholkularitza
- Ekipamendu hornikuntza (kontsumigarriak)
- Konfigurazioa eta instalazioa
- Mantentzeak
- Formazioa
- LOPD/ISSI adaptazioa

www.elaia.es • e-mail: info@elaia.es
Tel.: 94 640 98 98

sagasta
ITURGINTZA

Iñaki Urien Madrazo
Industria Azpiegiturak

GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA

Sagasta auzoa, Ambe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 98 24

AGENDA >

>ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Otsailaren 19an, 22:00etan

EXITUS

Heriotza da berbagai antzerki saio honetan. Ehorztetxe bateko behargina, lan bila dabilen gizona, botika-industriako zuzendaria eta abokatu baten bizitzak patuak elkartzen ditu eurek jakin ez arren. Pertsonaiek heriotzari aurre egiteko ikuspuntu zeharo desberdinak jarriko dituzte taulagainean. Titzina teatros istorio berri bat aurkezten digu pertsonaiek eta egoera era dinamikoa, poetikoa eta estilo tragikomikoa tartekatuz.

ANTZERKIA

BERRIZ

» **Aitarekin Bidaian** antzerki saioa otsailaren 19an, gaueko 22:00etan, Kultur Etxean.



DURANGO

» **Exitus** antzerki saioa otsailaren 21ean, 19:00etan, San Agustinen.

ELORRIO

» **Exitus** antzerki saioa otsailaren 19an, gaueko 22:00etan, Arriolan.

ZORNOTZA

» **Exitus** antzerki saioa otsailaren 20an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

BESTEAK

BERRIZ

» **Berrizko nagusiei zuzendutako bidaia: Otsailaren 24an, Urretxuko AIKUR erleen museora bisita izango dute.** Arratsaldeko 15:00etan izango dute hitzordua, Berrizen. Otsailaren 22rako izena eman behar da Jubilatuen Egoitzan.



DURANGO

» **Javier Mañón umoregilearen** bakarrizketa saioa, otsailaren 25ean, 23:30ean, Misarben.



IURRETA

» **Iurreta Txirrindulari Elkarteak 75 kilometroko ibilbidea** antolatu du otsailaren 20 eta 21ean 10:00etan Iurretan.

» **APA Mendiko Ibilbideak** otsailaren 21ean. Irteera Madalenako autobus geltokian, 08:30ean. Ibilbidea: Elorrio-Intxorta-Elorrio



ZALDIBAR

» **Gaztelekua**, 12urteetik 16rako gazteentzat, otsailaren 19tik 21era, 16:00etatik 20:00etara Gaztelekuan

» **Zapatublai**, otsailaren 20an, 16:00etatik 19:00etara.

ZORNOTZA

» **Gauero, gaztetxoentzat, 10-15 urte bitartekoentzat gaueko aisialdi programa.** Otsailaren 19an eta 20an esperimenduak egiteko aukera, arratsaldeko 20:00etatik 23:00etara, Zelaieta Zentroan.



DANTZA

ELORRIO

» **Aka Dantz (kale dantzen lehiaketa)**, otsailaren 20an 18:00etan Arriolan.



DEIAK

DURANGO

» **Odola emoteko aukera**, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

BERRIZ

» **"Bizitza minatuak"** Gervasio Sanchez 2009ko Argazki Sari Nazionalaren argazki erakusketa, otsailaren 19tik martxoaren 12ra, Kultur Etxean.



DURANGO

» **"La Biblia: Historia de un pueblo que busca su libertad"** erakusketa Aste Santura arte egongo da ikusgai Urribarriko Andra Marian. Asteleheneetik larunbatera, goizez 9:30etik 13:00etara, arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara. Domeketan goizez bakarrik.

» **Legazpiko Arkatza kultur elkartearen margo erakusketa.** Otsailaren 19ra arte, Andragunean.

ERMUA

» **Zeramika erakusketa.** Otsailaren 16tik 28ra Lobiano kulturgunean.



HITZALDIAK

DURANGO

» **Egunkaria libre!**, hitzaldia emango du **Martxelo Otamendik** Plateruena kafe antzokian, otsailaren 24an arratsaldeko 20:00etan.

ZORNOTZA

» **Pascal Humbert-en hitzaldia**, otsailaren 25ean, 10:30etik 13:00etara Auditorioan.

IKASTAROAK

BERRIZ

» **Autoestimua ikastaroa Berrizko nagusiei zuzenduta.** Otsailaren 18 eta 25ean izango dira saioak, arratsaldeko 17:00etan, 3. Adinekoen Egoitzan.



DURANGO

» **Zaindu programaren baitan**, Durangoko adinekoen udal egoitzan: **Mendekotasuna duten adinekoen zaintza lana**, otsailaren 24an. Ordu eta erdiko saioak dira. **Taldeko laguntza psikologikoa**, bizipenak elkarbanatzeko, otsailaren 23an. Ordua: 17:30-19:30.



» **Patinaje ikastaroa**, zapatuetan. 6 eta 15 urte bitartekoentzat, 16:00etatik 17:30etara. Nagusientzat, 17:30etik 19:00etara, Kurutzia Ikastolan. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

» **Dantza ikastaroa**, martitzen eta eguenetan. Gaueko 21:00etatik 22:00etara, Landako kiroldegian izango da. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

» **Stretching ikastaroa**, barikuetan, 20:00etatik 21:00etara, Landako kiroldegian. (Informazio gehiago: 94 603 0031 telefonoan).

» **Euskal dantzen ikastaroa.** Martitzenero, iluntzeko 19:30etik 21:00etara, Plateruena Kafe Antzokian, AIKO taldearen eskutik.

» **Adinekoentzako denetariako ikastaroak: Landare kontserba eta**

mermelada ikastaroa, adimen emozionala, etxeko kontabilitatea (Excel), argazkiak moldatzeko ikastaroa,

landare osasungarriak eta elikadurari buruzko ikastaroa, barreterapia eta adinari buruzko ikastaroa.

Izen-emateak Durangoko adinekoen udal egoitzan.



» **Tailerra: Eleberrir Beltza.** Apirila bitartean izango dira eskolak. Hamabost egunean behingo maiztasunagaz, Juana Lopez de Muniain-en eskutik. Izena emoteko Liburutegira gerturatu.

ELORRIO

» **Argazkilaritza ikastaroa.** Otsailaren 22, 23 eta 24. Eta martxoaren 1etik 3ra. Ordua: 19:00etatik 20:30era. Elorriko argazki taldeak antolatuta Kultur Etxean. **Izena eman ahalik eta arinen, plaza mugatuak** dira-eta. E-mail: eat@kzgunea.net

IPUINAK

DURANGO

» **Haurren irakurketa kluba**, otsailaren 23an Herri Liburutegian. 17:00-17:45 'Txikimundi', 8-10 urtekoentzat. 18:00etatik 18:45era 'ReZoom' 11-12 urtekoentzat.



» **Helduentzako ipuin kontaketa**, Carlos Ortiz (Caoz) Durangoko liburutegian, otsailaren 19an 20:00etan.

JAIAK




INAUTERIAK

ELORRIO

» **Biziathion**, otsailaren 21ean, goizeko 11:00etan plazan.

otsaileko agenda



Otsailak 19 • Ikima Tailerrak
17:30 "Ibilbide literarioak"

Otsailak 20-21-27 • Iurretako Txirrindulari Elkarteak
10:00etan. Ibilbide ezberdinak. (75km)

Otsailak 21 • APA Mendiko Ibilbideak
08:30 Irteera Madalenako autobus geltokian. Elorrio-Intxorta-Elorrio

Otsailak 23-26 • Iurretako Herri Biblioteka
23an, Haurren irakurketa kluba. 17:00-17:45 (8-10 urte) / 18:00-18:45 (11-12 urte)
26an, Haurtxoen irakurketa kluba. 17:30-18:30 (3-6 urte)
Helduentzako ipuin-kontalaria. 20:00etan Margarita del Mazo "De mil amores"

OHARRAK

• 2010eko otsailaren 1etik 12ra MAiztegi eta Orobegoitiako matriluka epea zabalik
• Lurreko Telebista Digitalerako deskodegailua dohainik eskuratzeko epea martxoak 15a arte
• Otsailaren 20an Emakumeentzat Autodefentsa ikastaroa. 10:00-14:00/15:30-19:30
• Otsailaren 15etik 26ra Internet ikastaroa KZgunean. 09:00-11:00/11:00-13:00
• Herriaren nortasun eta ohituren garrantzia. Mikel Deuna K.T.aren batzarra: otsailaren 18an arratsaldeko 7retan Goiuria kultur gunean.

IURRETAKO UDALA

LITERATURA

IURRETA

» **Ikima Tailerrak 'Ibilbide literarioak'** otsailaren 19an 17:30ean.

MUSIKA

BERRIZ

» **Dinero,** Rock&roll dantzagarria, Gaztetxean otsailaren 20an, 22:00etan.



DURANGO

» **Arrasate Musikal Big Band,** otsailaren 19an, Plateruenean gaueko 22:00etan.



» **"Froufre" Kontzertu akustikoa,** Otsailaren 19an, 23:30ean Misarben.

» **Overkill + Suicidal Angels + Savage Messiah + Crepper,** otsailaren 20an, Plateruenean gaueko 21:00etan.



» **IV. Durang(h)ots Jam Session,** otsailaren 25ean, Plateruenean gaueko 21:00etan.

ELORRIO

» **Napoka Iria eta Andran,**



Otsailaren 19an, 23:00etan Gaztetxean.

» **Gaztetxean 22. urteurrena,**

Otsailaren 20an, Gaztetxean. 18:30ean Jokin&Antton. 23:00etan The Rifftrucks+ Gose.



ERMUA

» **Blues kontzertua: Barrence Whitfield & Petti,** otsailaren 20an, 20:00etan Lobiano kulturgunean.



ZORNOTZA

» **Haitiren aldeko kontzertua,** Larrako San Juan Bautista elizan, otsailaren 20an, arratsaldeko 18:45etik hasita gaueko 23:00etara.

ZINEKLUBA


DURANGO

» **"Sin Nombre"** Otsailaren 25ean arratsaldeko 20:30ean Zugazan.



ERMUA

» **"Saló o los 120 días de Sodoma"** otsailaren 25ean, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano kulturgunean.



ZORNOTZA

» **"El imaginario del Doctor Parnassus"** otsailaren 23an, arratsaldeko 20:00etan Zornotza Aretoan.



Otsailaren 24an, 20:00etan

MARTXELO OTAMENDI

Egunkaria libre! Izenburupean Martxelo Otamendik hitzaldia eskainiko du Plateruenean. Otsailaren 20an Egunkariaren itxieraren zazpigarren urteurrena betetzen da, eta oraindik ere auzipetuak epaiaren zain daude. Egunkaria auziaren inguruan berba egingo du eta bere bizipenak kontatuko ditu Martxelo Otamendik. Jasotako elkartasuna ere izango du hizpide. Joan den barikuan, esaterako, gehiengo sindikalak "Egunkaria libre!" aldarrikatu zuen Bilbon. Eta hainbat eurodiputatuk Egunkaria auzian absoltuzioa eskatu berri dute Estrasburgon.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Shutter Island

Zuzendaria: *Martin Scorsese*
barikua 19: 19:00/22:00
zapateria 20: 19:30/22:30
domeka 21: 19:30/22:30
astelehena 22: 19:00/22:00
martitzena 23: 20:00



Tiana y el sapo

Zuzendaria: *Ron Clements, John Musker*
zapateria 20: 17:00
domeka 21: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

Sherlock Holmes

Zuzendaria: *Guy Ritchie*
zapateria 20: 22:30
domeka 21: 20:00
astelehena 22: 20:00



Niko eta izarretarako bidea

Zuzendaria: *Michael Hegner, Kari Juusonen*
zapateria 21: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa

Celda 211

Zuzendaria: *Daniel Monzón*
zapateria 21: 20:00
domeka 22: 20:00



Umeendako zinema

Donde viven los monstruos

Zuzendaria: *Spike Jonze*
domeka 21: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 19**
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-22:00
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Zapateria, 20
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
• Balenciaga/ Unamunzaga/ Sagastizabal/ De Diego/ Campillo/ SanRoma/Gaztelumendi(Durango)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)*
Domeka, 21
09:00-21:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
Astelehena, 22
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Matiena)
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Martitzena, 23
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
Eguaztena, 24
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga (Torresolo, nº 4-Abadiño)
Eguena, 25
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
lurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

- UDALAK**
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta 94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio 945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOAK
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

- Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

- 8° BARIKUA** ☁
Eguraldia txarrera egingo du nabarmen. Zaparradak sarriak izango dira, txingorra ere bota dezake. Elur-kota 600 metro ingururaino jaitsi daiteke. Hotza eta ipar-mendebaldeko haizea espero ditugu.
12° ZAPATUA ☁
Hodeitsu egongo da oraindik eta zaparradaren bat bota dezake, ekaitzagaz batera gainera. Mendebaldeko haizea zakar ibiliko da. Tenperatura maximoek gora egingo dute, eta elur-kota ere igoko da.
10° DOMEKA ☁
13° ASTELEHENA ☁
12° MARTITZENA ☁

Izan zu zeu kazetari
eta argazkilar
Zure auzoko jaiak direla?
Ekimen bat prestatu duzuela?
Mendira joan eta paisaia zoragarriak
ikusituzula?

argazkitek

berria

Bialdu zure argazkiak eta gure
WEBean izango dituzu ikusgai
Gura baduzu bialdu albistexoa
argazkiagaz batera



Bidali zure argazkiak: astekaria@anboto.org helbide elektronikora



anboto
komunikabideak



www.anboto.org

dimentsiotan

KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Ohorezko Mailan sufritzen dabil Berriz. Jaitsiera postutik puntu bira egotearen arrazoietakoa bat ate aurrean erakutsi duten begi eskasa da. Orain arte jokatuak 21 partiduetan 13 gol baino ez dituzte sartu. Mailan golik gutxien sartu duen taldea da. Berrizko golegile nagusia 18 urteko gazte bat da: Adrian Garate, hiru golekin. Egia da gol gutxi jaso dituztela ere -17gaz, gol gutxien jaso duten bigarren taldea dira-, baina puntuak pilatzeko aurkariaren atea sarriagotan zulatu beharra dago: "Goliek jasotzen ez genuenean, gutxienez, puntu batzea lortzen genuen. Azken aldian, ordea, golak egin dizkigute eta guk asmatu ez dugunez estuago gabilta", azaldu du Jose Manuel Alvarez behin-behineko entrenatzaileak.

Atearen aurrean kamuts

Aldikada txarrean dabilenak, normalean, zortea ere ez du aldeko izaten. Joan zen asteburuan 0-1 galdu zuten etxean, Ugeragaren kontra. Izoztuta zegoen Berrizburu zelaian gehiago izan ziren berriztarrak. Hainbat aukera izan zuten, eta, Ugeraga 10 jokalarigaz geratu zenean, ematen zuen hiru puntuek etxean geratu behar zutela. Inork pentsatzen ez zuena gertatu zen, baina. 93. minutuan Ugeragak garaipenaren gola sartu zuen: "Kolpe gogorra izan zen. Taldea hondoratu zegoen aldageletan. Baina animoa berreskuratu eta aurrera egin behar dugu", dio Alvarezk.

Berriz azken bosgarren dago sailkapenean eta, aldaketarik ezean, talde bi jaitsiko dira.

"Kolpe gogorra izan zen porrota; baina aurrera egin behar dugu"

Zoritxarrez, Retuerto estu dabil goragoko mailan, eta baliteke hiru talde izatea Ohorezko Maila galdu dezaketena.

Dena dela, maila horretan talde asko dago maila ez galtzeko borrokan, eta berriztarrak besteko estu dabilta beste hainbat talde ere.

Bihar Derioren zelaian jokatuko dute; beste arerio zuzen bat, sailkapenean bost puntu gorago daude. ■ J.D.

24 Kulturala VS Athletic, Haitiren alde

Durangoko Kulturalako eta Athleticeko beteranoek partidu solidarioa jokatuko dute domekan. Batutako dirua Haitikolurrikara pairatu dutenei laguntzeko izango da.

25 Elorrion, eskubaloaren herentzia

Elorrio eskubaloia taldea desagertu egin da aurtan. Han jokatutako hiru jokalarik batu ditugu. Orain, beste talde batzuetan dabilta eta asteburuan elkarren kontra lehiatuko dira.

Lau finaletatik lehenengoa jokatu du DRTk Getxon

Mailari eusteko borrokan arerio zuzenaren kontra jokatu du bihar



Promozio postuak ekiditeko puntuak behar ditu Durango Ilarduyak. Ana Dominguez

Promozioa ekiditeko borroka betean sartuta dago Durango Ilarduya. Orain aste bi Vigoren kontra etxean jasotako porrotak egoera delikatu utzi zituen; azken aurreko eta promozio postuan. Beraz, liga amaitu arteko lau partiduak lau final bihurtu dira, eta bihar jokatu dute lehenengoa Getxon.

Vigoren kontrako partidutik atera duten ikasgai nagusia baloiaren jabetzari dagokio: "Baloi asko galdu genituen, eta horrek segurtasun falta eragin zuen taldean. Baloia mantentzen ahalegindu behar dugu", dio Aratz Gallastegi entrenatzaileak.

Gainerakoan, partidu "interesgarria" aurreikusten du durangarren entrenatzaileak, eta

"hutsik gutxien egiten duen taldeak irabaziko du".

Getxokoaz gainera, beste hiru partidu geratzen zaizkie; hurrengo biak Bartzelona Unibersitari Club eta Oviedoren kontrakoak. Talde biak goiko postuetan dabilta. Liga etxean amaituko dute Eibarren kontra. Orain bertan Eibar azkena da.

DRT eta Elorrio, derbia

Bestalde, Euskadiko ligan derbia jokatu dute Durango Ilarduyak eta Elorriok. Elorriarrak laugarren daude, 30 puntugaz, eta lau puntura bakarrik dute bigarren den Gernika. Durango taldea azken aurreko dago 15 puntugaz, baina azken astetan hobeto dabilta. ■J.D.

A. Gallastegi: "Baloia mantendu behar dugu. Vigoren kontra askotan galdu genuen jabetza"

Getxoz gainera, BUC, Oviedo eta Eibar ditu arerio DRTk promozioa saihesteko borrokan

Kulturaleko eta Athleticeko beteranoak, Haitiren alde

Lagun arteko partidua jokatu dute etzi, Haitirako dirua batzeko

Haitik jasandako lurrikaran kalte-tutakoei laguntzeko partidu solidarioa jokatu dute domekan, 11:30ean, Durangoko Kulturaleko eta Athleticeko beteranoek Tabiran.

Sarrera bost euro izango da, eta batutako dirua Solidaridad Internacional gobernuz kanpoko erakundeari emango diote, euren kudeatu dezaten. Diruaz gainera, esaterako, arropak ere eman daitezke dohaintzan; "beharrizana daukanari lagundu diezaiokeen edozer ekarri dezake partidura datorrenak", argitu du Rikardo Txintxur-

rrera Durangoko Kulturaleko kirol zuzendariak.

Klubeko zuzendaritzaren ideia izan zen horrelako partidu bat antolatzea: "Lehenengo pausua Athleticegaz hartu emanetan ipintzea izan zen. Baietza eman zigutenean hasi ginen dena mugitzen".

Entrenatzailea jokalaria

Durangoko Kulturalek sasoi bateko 22 jokalaria batu ditu, baina baliteke oraindiko besteren batzuk ere etortzea. Gaur egun, talde nagusiaren entrenatzaile den Axier Intxaurrek

da zerrendan ageri denetako bat. Seguru harmailetan dauden bere jokalariek hurretik jarraituko dutela "nagusiaren" errendimendua.

